

HERRI KOOPERATIBAK:

HELDULEKU TEORIKOAK
ETA BIDERAGARRITASUN
JURIDIKOA EUSKAL
HERRIAN



KoopFabrika
a r g i t a l p e n a k

OLATUKOOP, GEZKI eta LANKE eragileen artean bideratzen dugu KoopFabrikako ikerketen ildoak. KoopFabrikan indar handia jartzen dugu ikerketan, uste baitugu ezinbestekoa dela gure lurraldeak aztertu, jendartearen beharrak identifikatu eta hauek eragiteko tresnak sortzeko.

Irakurtzen ari zaren hau garatzen ari garen ikerketa sortako ale bat da.

Ikerketa guztiak eskuragarri dituzu KoopFabrikaren webgunean: KoopFabrika.eus/argitalpenak



Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea
LANKE Kooperatibismoaren Ikertegia

ARGITALPEN HAU

formatu digitalean eskuragarri hemen:



koopfabrika.eus/argitalpenak

2022ko urria

Egileak

Enekoitz Etxezarreta Etxarri eta Jon Morandeira Arca -
GEZKI, UPV/EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua

Aitor Bengoetxea Alkorta
GEZKI, UPV/EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua



P2P lizentzia:

https://endefensadelsl.org/ppi_deed_es.html

Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaleak zu edo zure erabilera onesten duenik.

PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.

Ez-kapitalista - Lan honen merkataritza-ustiapena soilik kooperatibek, irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta kolektiboek, autogestionatutako langileen erakundeek eta esplotazio-harremanik ez dutenek egin dezakete. Lizentzia honek ematen dituen eskubideez baliatuz lortzen diren soberakin edo gainbalio guztiak langileen artean banatu beharko dira.

Finantzatzailea

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Promoción
Económica, Turismo y
Medio Rural



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

KoopFabrika
a r g i t a l p e n a k

**HERRI
KOOPERATIBAK**

**HELDULEKU TEORIKOAK ETA
BIDERAGARRITASUN JURIDIKOA
EUSKAL HERRIAN**

Hitzaurrea

Ikerketa lan hau lantzeko helburua jarri genuenean, Herri Kooperatiben ideiaren lurrartze posibleak aztertzeko izan zen. Forma eman nahi genion, momentu horretan ideia edo errealitate berri izaten hasten ziren, Igeldo, Zizurkil, Aginaga, Bakaiku eta beste zenbait herri-proiektuei.

Eta hortik suertatu zitzaizkigun ondorengo galderak: posible ahal da herritar antolatuek, beren behar eta desirak kontutan hartuko dituen egitura sozioekonomikoak egituratzea, beren auzo/herri/eskualdetan? Zein gobernantza-eredu eta forma juridiko hartu ditzakete?

Hori izan zen lan honekin erantzuten hasi nahi genuena. Argi daukagu hemen zehazten diren aukerak, aukerak besterik ez direla. Proiektu bakoitza bakarria dela eta lurraldetua behar due-

la izan, beraz, tokiko beharretara eta desiretara egokitua. Gure partetik bidea erraztea dugu helburu bakarra. Etorkizunean jaioko diren Herri Kooperatibek aurrekoak baino errazago eta hobe ernatzea posible izatea nahiko genuke.

Ez dugu, beraz, lan honetan aurkezten diren forma juridiko guztietatik, bakar batekin ere %100ean lotzen Herri Kooperatibaren ideia; berau ideia bizia baita, eta praktika materialekin harremantzen garatuko delako. Hala ere, SCIC formaren kontzeptua edota kooperatiba integralek eskaintzen dituzten aukerek bide politikak irekitzen dituzte esploraziorako.

Segidan, Herri Kooperatibaren ideia-mapa aurkezten dizuegu hiru ataletan banatua: zer da, nola jarri martxan eta zein forma juridiko har lezake.

Zer da?

Herri kooperatiba EZ da forma juridiko bat, forma ezberdinak har ditzake. Ez da plataforma bat, baina plataformaren ideiatik ere jasotzen du. Herri kooperatiba EZ da zerbitzu publikoak ordezkatzeko tresna bat, baina administrazio publikoak eskaini ditzakeen edo eskaini behar-ko lituzkeen hainbat zerbitzu ematera bidera daiteke.

Herri Kooperatiba Herri/Auzo/Eskualde/Zonalde batek beharrezko dituen edo desira kolektibo bat diren proiektuak sustatu eta zerbitzuak eskaintzeko herri egitura sozioekonomiko bat da.

Herritar antolatuak nagusi izanik, era ezberdinetan ekonomia sozialeko agenteak, herri-eragileak eta erakunde-publikoak helburu komun batekin biltzen dira bertan, helburu hori gauatzeko forma kooperatiboa baliatuz.

Nola jarri martxan?

Ekimen hauen zailtasuna, behin komunitatearen beharrak detektatu direnean, jendea bildu eta eragitean egoten da. Bide horretan, ezinbestekoa da subjektu eraldatzailea (komunitatearen sostengua duena) eratzea, figura hori izango baina proiektuaren sustatzaile nagusia eta bertan bilduko dira herritarrek eta herri-eragileak.

Normalean proiektua sustatuko duen talde eragile bat ere beharko da hasieran eta garrantzitsua da talde anitza izatea; hau da aipatutako hiru eragile-motetatik (komunitarioa, publikoa, kooperatiboa) norbait egotea eta aliantzan jardutea.

Horretaz gain, normalean prozesu parte hartzailea abiatzea ere komenigarria da, komunitatea osatuko duten pertsonak erabakiak hartzeko ezagutzak eskuratu eta erabakiak har ditzaten.

Kooperatibak izaera zabala eta zerbitzu anitza izango badu ere, hasteko proiektu estrategiko bat identifikatu eta martxan jartzea garrantzitsua izan daiteke. Lehen proiektu edo zerbitzu hori erantzun nahi dugun behar edo desira kolektibo bati lotuta egotea ere ia ezinbestekoa da.

Helburua proiektu horren bidez Herri Kooperatibara atxikimendua lortzea da. Jendea proiektu hori sortzeko biltzen denean, bazkidetza proiektu horri bakarrik lotuta egon beharrean, proiektu nagusira lotuko da. Bazkideak kooperatibako bazkide izango dira eta informazioa eta parte hartzeko aukera izango dute. Horretaz gain, sortuko diren hainbat zerbitzuren erabiltzaile izan ahalko dira; ez bakarrik zerbitzu batena. Horrek egindako lana berrerabiltzeko aukera ematen du, etorkizunean komunitateak beharrezko dituen beste proiektuak martxan jartzea erraztuz. Ekintzailetzarako erraztasunak ere ematen ditu, hasiera batean proiektuek kooperatiba horren forma juridikoa baliatu dezaketelako eta hortik hazi edo garatu, proiektu autonomo bilakatzeraino.

Behin lehen proiektu hori martxan jartzen denean, lan-taldeak sortzea beharrezkoa izango da eta lan horrek zein izaera izango duen definitu beharko da (lan ordaindua, boluntarioa, konbinatua...). Ordainpeko lana egongo den kasuetan garrantzitsua da definitzea langile-taldea zein izango den eta talde horren kudeaketa kooperatibismoaren balioen baitan egitea.

Zein egituratze juridiko izan lezake?

Herri Kooperatiba horren izaera eta estatutuen inguruko lanketa espezifikoak egitea beharrezkoa izango da.

Kooperatiba motaren aldetik, era askotakoak izan daitezke: kontsumo, zerbitzu, lan-elkartukoak, integralak, mistoak...; batzuk egokiagoak besteak baino. Halaber, garrantzitsuena ondo definituak egotea da.

Irabazi asmorik gabekoa, ekimen sozialekoa eta, ahalko balitz, interes publikokoa izatea ere oso gomendagarria izan daiteke.

Horretan guztian, badaude kontutan hartzeko beste zenbait elementu ere:

- Herritarrek erabakiaren eta gobernantzaren gehiengoaren kontrola izatea bazkidetza ereduaren.
- Herri-eragile antolatuak eta erakunde-publikoek bazkide izateko edo erabakietan parte hartzeko egokitasuna, baina ez ezinbestekotasuna.
- Lan boluntarioa arautzea eta lan ordaindua balego, lan horren izaera kooperatiboa edo burujabea bermatzea.
- Sarbide zabala, irekia eta unibertsala bermatzea komunitate hartzailea kokatuko den lurraldean (auzo/herri/eskualde).
- Eskaintzen diren zerbitzuen edo sustatzen diren proiektuek sostengu komunitario zabala izatea edota komunari ekarpen garbia izatea.

Bidea egiten...

KoopFabrikatik Herri Kooperatibak sortzen laguntzeko erraztasunak ematen jarraitu nahi dugu eta horretarako bideak eraikitzen eta zabaltzen ari gara: bidelaguntza prozesuak martxan jarritz; Herri Kooperatiben ideia sistematizatu eta iker-tuz; erakunde-publikoekin prozesuak laguntzeko erraztasunak bilatuz; adibideak sozializatuz eta hedatuz; arlo politikoan eraginez, etabar.

Hemen aurkezten duguna Herri Kooperatiben hedapenean laguntzeko beste ekarpen bat dela uste dugu. Ideia-mapatik kartografia zehatza-goak izateko bidean, herrigintza sozioekonomikoan nabigatzeko tresna bat gehiago dugu orain, GEZKiko kideek eginiko lan honi esker.

HERRI KOOPERATIBAK: HELDULEKU TEORIKOAK

0. Aztergaiaren hurbilketa

Arazo sistemikoen aurrean erantzun komunitarioak

Aldaketa garaiak bizi ditugu. Garai aldaketak, ziurrenik. Kapitalismoak, jabego pribatua eta merkatu mekanismoan oinarritua eta mozkin asmoak gidatuta, bere baitako aldagai suntsitzaileekin egin du talka, ageriago ezin: jendarte disparekotasunen areagotze etengabea eta natur baliabideen xahutze itzulerarik gabea. Maila materialean afera ez da nolanahikoa: gutxiago izango da banatzeko. Materialari lotzen zaio, gainera, kudeaketa krisia: gutxiago dago banatzeko, guztiz ahuldutako birbanaketa mekanismoen bitartez.

Merkatuak ez du, ez duenez, bizitzaren sostengarritasunerako beharrezkoak diren ondasunak, ondasun esentzialak nahi bada, modu egokian esleitzeko inolako gaitasunik. Merkatu akatsei erantzuteko estatuari egokituriko funtzioak ere (ongizate estatua, politika ekonomiko antiziklikoak, etab.) modu disfuntzionalean garatzen dira, neurri handi batean interes ekonomiko oligopolistikoa gailentzen baita interes orokorraren gainetik. Merkatuak eta estatuak ageri dituzten egiturazko arazoen aurrean, geroz eta indar handiagoz hedatzen ari da hirugarren kudeaketa modu baten premia, Elinor Ostrom ekonomialari Nobel saridunak komun gisa izendatua.

Elinor Ostrom eta bere lantaldeak ebidentzia enpirikoen bitartez gezurtatu zuen Hardin-ek (1968) zabalduko “Komunen tragedia”: komunitateak partekaturiko baliabideen gain-esplotazioa ekidin liteke interes partikularra ordezkatzeko bada ondasun komunaren kudeaketa-arauen bitartez. Ondasun komunak kudeatzeko printzipio nagusi batzuk ezartzeaz gain, ondasun publiko eta pribatuen kategorizazio neoklasikoa irauli zuen, eta areago, jabego pribatu edo publikoaz aparte beste jabego modu bat erreskatatu zuen historiaren ahanzturatik: jabego komunala edo komunitarioa.

Jabego egiturak zerikusi zuzena baitu egun ebazteke ditugun zibilizazio-erronka erraldoiekin: gizarte disparekotasunak ezabatzea eta gure ekoizpen eta kontsumo ereduak mugapen ekologikora, naturaren erreproduktzio gaitasunera, doitu beharra. Izan ere jabego pribatuak, eta beronek ekoizpen prozesuetan txertaturiko logika hegemonikoak, mozkin asmoak, ekarri gaitu baliabide naturalean gain-esplotazio itzulezineko egoera batera. Esan nahi baita, ez dagoela ekosistema naturalen degradazio logikak itzulikatzerik, jabego egiturak auzitan jarri gabe (Turiel, 2020).

Komunaren ikuspegiak, hortaz, ondasun konkretuen kategorizazio publiko/pribatua jartzen du auzitan, eta hedaduraz, baita horien jabego egiturak eta gobernantza sistemak ere. Ostrom eta bere lantaldeak ondasun komun gisa zenbait natur baliabideren kudeaketa aztertu bazuen ere (ura, arrantza, basogintza, ureztatze sistemak, etab.) (Ostrom, 1990, 2007, 2010) egun komunaren ideia oso hedatua agertzen da landa-ingurukoak ez diren beste hainbat esparrutara ere: ezagutza, sorkuntza, software libreak, finantzak, etab.-etara (Bance, Bouchard eta Greiling, 2022).

Natur baliabideak gain-ustiatzen dituen eredu estraktibistaren ordeztu, gure oinarri materiala modu iraunkor batean babesteko estrategia gisa ulertu izan bada ere ondasun komunaren proposamena, egun geroz eta gehiago hitz egiten da edozein motako ondasunak (ez soilik naturalak) komun bilakatzeko estrategiaz (*commoning*) (Bance et al, 2022; Guttman, 2021). Komuna, zentzu horretan, jendarte eraldaketarako ipar gisa uler liteke, ondasun komunaren gobernantza komunitarioa, bere horretan, prozesu sozial bat baita, sakonduz gero egungo sistema eraldatzea dakarrena.

Euskaraz “mankomunatzeko” gisa itzuliko dugun *commoning* adierak, beraz, kapitalismoaren logika hegemonikoak iraultzea proposatzen du, jabego pribatua, mozkin asmoa eta bizitzaren geroz eta esparru gehiagoren merkantilizazioaren aurrean, mankomunatzeko litzateke estrategia politiko bat, prozesu sozial eraldatzaileak abiaraziko lituzkeena (komunak hedatzea) geroz eta esparru gehiago jabego komunitario eta gobernantza komunaren bitartez kudeatuak izateko (Linebaugh, 2009; Federici, 2012; Fournier, 2013; De Angelis, 2013; Dardot eta Laval, 2014; Boilier, 2016).

Jabego eta gobernantza egituren komunitarizaziorako tresna gisa proposatzen dugu jarraian Herri Kooperatiben adiera. Komunaren adiera autoeraketa eta eragile ezberdinen arteko lankidetzaren printzipioetan oinarritzen denez (Bance et al 2022), Herri Kooperatibak lankidetzaren komunitarioa (publiko-kooperatiboa) artikulatzeko tresna formal gisa garatuko ditugu. Guttman-ekin (2021) bat eginez, gure lanerako hipotesi nagusia hau da: komun gisa garaturiko gobernantza moduek beharrezkoa den jendarte eraldaketarako erakunde ezberdinen arteko lankidetzaren ahalbidetzen dutela uste dugu.

Zentzu horretan, gure aztergaia ekonomia sozialaren baitan nazioarte mailan arreta handia bereganatzen ari den ikerketa ildo zabal baita koka genezake.

Akademikoki puri purian dagoen eztabaida

Ekonomia publikoa eta ekonomia sozialaren arteko lankidetzaren gaiak ibilbide luzea du CIRIEC-International-en baitan, ekonomia sozial publiko eta kooperatiboko nazioarteko erreferentziazko erakundearen baitan, hain zuzen ere. Bernard Enjolras (2008) eta Ives Vaillancourt (2008) autoreak agertzen zaizkigu lehen mailako ekarpenen artean, eta geroztik, 2018tik gaur arte ikerketa ildo honek oparoaldi bat ezagutu duela aipatu behar da, gai horien inguruan nazioarte mailan ageri den interes berriak eraginda.

Honela, nazioarteko ikerketa talde ezberdinen bitartez egin izan diren ikerketetan, lankidetzaren publiko-komunitarioaren gaia aztertu izan da ondasun eta zerbitzu publikoen eta ondasun komunen hornidurari erreparatuz bereziki, arreta puntu ezberdinak jarri izan direlarik herrialde ezberdinetan: dela elikadura sektorea Frantzian edo haurren pobrezia Belgikan, dela basogintza Errumanian edo mikrokredituak Indian, dela landa gune endekatuak Alemanian edo onasun publikoak Eslovakian, eta finantza sistemak, osasungintza zein komun digitalak nonahi, nazioarteko ikerlari andanak hartu du arretagunetzat lankidetzaren publiko-komunitarioaren gaia (Bance et al, 2022).

Ikerketa horien lekuko dira, halaber, horien emaitzak argitara emanez berriki agertu diren nazioarte argitalpen ezberdinak ere: *Providing public goods and commons. Towards coproduction and new forms of governance for a revival of public action* (Bance, 2018) eta *New perspectives in the co-production of public policies, public services and common goods* (Bance, et al 2022) ikerketa bildumak, biak ere Ciriec-International baitan Philippe Bance-k gidaturiko ikerketa taldeen emaitzak direnak, edo autore honek berak Jérôme Schoenmaeckers-en laguntzaz 2021ean koordinaturiko ale berezia *Annals of Public and Cooperative Economics* puntako aldizkarian.

Nazioarte mailan ageri diren lankidetzaren eredu ezberdinei deitura bakarra ezarri nahita, *Public-Social and Solidarity Economy Partnerships* moduan izendatuak izan dira horiek, baina funtsean, bi eragile horien artikulaziopean erantzun komunitario ezberdinak artikulatu nahi izan direnez, lan honetarako Lankidetzaren Komunitario gisa izendatuko ditugu.

Zentzu berean, terminoen arteko koherentzia bat gorde nahian, Herri Kooperatibaren translazio juridikoa “Interes Komunitarioko Kooperatiba” izatea proposatzen dugu, nahiz eta egun indarrean diren araudietan inon jasotzen ez den halakorik. Proposamen honen oinarrian Frantziako “interes kolektiboko kooperatibak” edo “Société Coopérative d'Intérêt Collectif”

horiek leudeke, nahiz eta gure iritzian “kolektibo” horrek ez duen behar bezala jasotzen interes orokor eta mutualaren arteko uztarketa.

Beraz, “interes komunitario” gisa jasoko dugu kooperatiba horietan bazkideturiko kideez gain interes orokorraren mesedetan jarduten duten Herri Kooperatiben kategorizazioa. Izan ere, komunitarioak iradokitzen baitu lurraldeari eta kudeaketari loturiko ezaugarritze bat dakarrela berarekin: lurralde mailan, tokiko esparrura garamatza, non agertzen baitira herrigintza, kooperatibagintza eta udalgintzaren arteko elkarlanerako esparrurik aproposenak; eta bestalde, kudeaketa mailan, eredu propio bat ere balekarke berekin, “guztiona dena” izan ondasun publiko edo komunal gisa ulertua, modu parte hartuan eta autoeratuan kudeatzekoa, hain zuzen ere.

Hortaz, Herri Kooperatiba edo Interes Komunitarioko Kooperatibetan sakontzeko aztertu asmo duguna da egun Euskal Herrian dugun legedia kooperatiboak zein aukera uzten dituen zabalik eite horretako enpresak egituratzeko, beren oinarri sozietarioa izaera ezberdineko bazkide publiko zein pribatuei irekiaz, eta interes orokorra eta mutuala aldi berean bermatuko dituen gobernantza eredu propio bat proposatuz.

1. Herri kooperatibak mankomunatzeko estrategia gisa ulertua

1.1. Mankomunatzea ipar: geroz eta esparru gehiago komun bilakatzeko estrategia

Esanda bezala, jabego eta gobernantza egituren komunitarizaziorako tresna gisa proposatzen dugu hemen Herri Kooperatiben edo Interes Komunitarioko Kooperatiben kontzeptua.

Mankomunatzeko estrategia gisa interpretatuko dugu, lehen lehenik, funtsean kooperatibizazio estrategia bat dena. Izan ere, Herri Kooperatibak osatzea, komuna, guztiona dena, eragile anitzek osaturiko kooperatiben bitartez kudeatzeko proposamena da. Zentzu horretan, kooperatibizazioa bera da mankomunatzeko estrategiaren pieza bat, egitura formal bat eskaintzen diona prozesu sozial horri.

Erabiliko ditugun kontzeptu ezberdinen inguruko zehaztapena jorratuko dugu jarraian. Gauza bat baita komuna (*commons*), beste bat ondasun komuna (*common pool resource*), beste bat mankomunatzea (*commoning*) eta azkena kooperatiba. Elkar lotura zuzena dute, baina ez dira gauza bera. Kooperatiba bat izan daiteke komun bat, edo ez. Komun bat izan daiteke kooperatiba, edo ez. Eta azkenik, mankomunatu dezakegu kooperatiba bidez, edo ez. Bereziki erabilgarri egin zaigu ariketa honetarako Alexandre Guttman ikerlariak “*Commons and cooperatives: a new governance of collective action*” izenburuean argitaraturiko lana (Guttman, 2021).

Abiapuntutik hasiz: herri kooperatibak sortzea, esparru konkretu batzuk (izan ondasun edo zerbitzuak, izan publiko edo pribatuak) kooperatibizatzeke proposamena da. Kooperatiba horien osaketa eta gobernantza definituko luketen xedapen juridikoak aurrerago garatuko dira, zehatz mehatz, Euskal Herri osorako.

Oinarrian, juridikoki, kooperatibizazio prozesu formal bat dago beraz. Kooperatibizazio honek, ordea, mankomunatzeko estrategia bati erantzuten dio. Kooperatibizazioa litzateke, orduan, mankomunatzeko modu bat, baina ez bakarra, jakina. Ondasun bat komun bihurtzeko modu asko baitaude, formaltasun maila ezberdinekin, eta ondorioz, egitura juridiko ezberdinekin (edo inolako egitura formalik gabe).

Kooperatibizatuz ondasun bat komun bihurtzeko oinarria jartzen da, mankomunatzeko egitura formala proposatzen da. Zer da ba, orduan,

mankomunatzea? Esparru konkretu bat (izan ondasun edo zerbitzua, izan publiko edo pribatua) komun bilakatzea.

Ondasun bat komun bihurtzeak bi inplikazio nagusi ditu (Guttman, 2021):

- *Erakundetze prozesu* bat: antolaketa kolektiborako instituzio edo erakunde bat eratzen da, kasu honetan, kooperatiba.
- *Birbanatze edo partekatze prozesu* bat: partekatua izateak esan nahi du, gutxienik, hiru gauza: i) atzipen eskubide berbera dutela komunitatea osatzen duten pertsona guztiek; ii) ekoizpen partekatua edo kooperatibo bidez eskaintzen dela; iii) ekoizpenaren emaitzak modu justuan banatzen direla komunitatea osatzen duten kide guztien artean;

Coriat-ek (2015) berretsi egingo du ideia bera: komuna, komunitate batek partekaturiko ondasun baten gaineko “eskubideen multzoa” ezartzea litzateke, ondasun horren erabilera, banaketa, kudeaketa eta iraunkortasuna bermatuko luketen arauketa kolektiboa gauzatzea litzateke, eskubide horiek arautuko dituen gobernantza sistema erakundetua (*instituzionalized*) sortuz.

Mankomunatzeak, hortaz, erakundetze prozesu partekatuak ahalbidetzea dakar, komun bilakaturiko esparru hori lankidetza, elkartasun eta elkarrekikotasun printzipioen arabera kudeatua izan dadin (Bance et al, 2022). Bestela esanda, mankomunatzea, esparru bat autoeraketaren bidez partekatua bihurtzea litzateke (Guttmann, 2021). Partekatua bihurtze hori, bistan denez, prozesu sozial bat ere bada bere horretan, eta sakontasun maila ezberdinak lor ditzake, esparru hori “komunagoa” edo “ez hain komuna” bilakatzen dutenak.

Esparru bat komun bihurtzea, hortaz, prozesu sozial gisa ulertua izan behar da, ez ondasun bati aurretiaz egokitu lekiokkeen esentziazko berezko ezaugarri bezala. Esparru hori mankomunatzea, komuna (guztiona dena) gobernatzeko gida bat da, eta komuna osatzen duen komunitateak (komuneroek) etengabe probatu eta berrikusi behar du lortzen ari den komunitarizazio maila, horrek berak definituko baitu komunitatea bera: geroz eta engaiamendu handiagoz mankomunatu, orduan eta indar handiagoa izango da kapitalismoaren logika nagusiak auzitan jartzeko, jendarte post-kapitalista bat ezaugarritzeko.

Urrats bat urrunago joanez: ondasun komunaren gobernantza praktika sozial gisa ikustetik, Ostrom-ek egin gisara, kapitalaren nagusitasuna kolokan jarriko duen jendarte eraldaketarako gida gisa aitortua izaten ari da (De Angelis, 2007).

1.2. “Sen ona” edo zentzu komunaren arauak

Komunak, Ostrom-ek (1990) teorizatuari lotuz, hirugarren bide bat eskaintzen du jabego pribatu eta publikokoak ez diren esparruak kudeatzeko. Errazago egiten da komun bat sortzea baldintza konkretu batzuk emanaz gero: baliabide baten urritasun egoeran eta horren ordezeko argirik ez bada, esaterako. Baita zaindu beharreko baliabide horrek muga fisiko argiak baditu (itsasoak ez bezala). Baina komunak ondo funtzionatuko badu, berebiziko garrantzia du aurretiazko baldintza batek: ongi definituriko komunitate bat, portaera arau sozialak kolektiboki formulatzeko gai dena.

Ongi definituriko komunitate horrek ezarriko ditu komunaren gaineko erabilera arduratsurako arauak eta prozedurak, modu orekatuan uztartuz egoki betetzeagatiko pizgarriak eta arau-urratze kasuetarako zigor mekanismoak, bereziki gain-erabilpen kasuetarako.

Ostrom-en ekarpena da tokiko komunitate horien arauen atzean 8 printzipio nagusi sintetizatu izana, honek “diseinu printzipio” gisa deituak (Guttman, 2021):

- i. *Muga argiak*: komunitateak gai izan behar du komunera atzipenik ez duten “kanpo eragileak” baztertzeko. Muga horiek, izan sozialak edo lurralde mailakoak, berdin eragiten diete ondasun partekatuari eta erabiltzaile den komunitateari.
- ii. *Jasotako eta emandakoaren arteko korrespondentzia*: baliabidearen erabilera dagokionez, esleipen (zer hartu: tokia, denbora, kantitatea, teknologia) eta ekoizpen (zer eman: lana, materialak) arau zehatzak ezarri behar dira, tokiko baldintzekin uztargarriak direnak. Arau horien koherentziak berebiziko garrantzia du kideen arteko ekitatea sendotzeko, norbanakoaren premiak eta esfortzu maila parekatzeko, eta justiziaren zentzu kolektibo bat garatzeko, zeina baita partekatutako baliabidearen iraunkortasunaren berme.
- iii. *Hautespen kolektiborako akordioak*: berebiziko beste gobernantza printzipio bat da erabaki-hartze prozesu egokiak ezartzea, kide gehienen (guztien ezin bada) parte hartzea bermatzeko komunaren gobernuan. Akordio horiek, batzar edo bestelako egituretan gorpuztuta, kideen ekarpen parekoa bermatzen dute, eta kanpoko eragin burokratikoak ekidin.
- iv. *Jarraipena eta berrikuspena (monitoring)*: indarrean diren arauak erregularki berrikusiak behar dute izan, baliabidearen erabiltzaile edo horien ordezkarien bitartez.

- v. *Zigor mailakatuak*: arau hausteeak egindako urraketa larritasunarekin proportzionalak diren zigor mekanismoak behar dituzte.
- vi. *Gatazken kudeaketarako mekanismoak*: gatazkak modu azkarrean ebatziak behar dute izan, eta alde guztien aldetik modu justuan hautemanak.
- vii. *Eskubideen gutxieneko aitortza*: herri erakundeek onartu behar diete baliabideen erabiltzaileei komunak beren kasa gobernatzeko eskubidea kanpo interferentziarik ezarri gabe.
- viii. *Enpresa “txertatuak”*: ondasun komun handien kasuan, “geruza ugariko” gobernantza egiturak behar dira, ondasunaren tokikotasuna galdu gabe. Hortaz, txertatze hori erabiltzaile talde ezberdinen arteko komunitate-arteko sare horizontalen bitartez antola liteke, edo bertikalki, eskala txikiko komunak erakunde handiagoekin konektatuz, herri-erakundeak engaiatuz, kasuan.

1.3. Kooperatibek eta komunak bat egin zutenekoa

Aurreratu dugu, kooperatibak eta komunak ez dira gauza bera, baina bat egin dezakete, bien mesedetan.

Komunak, alde batetik, ez dira eragile ekonomiko bat. Baliabide baten erabilera eta iraunkortasuna bermatzen duen lankidetzazko antolaketa sistema gisa ulertu behar lirateke. Jende multzo bat dute atzean, komunitate bat, maila indibidualean baliabide horren atzipen partikularra izateko aukerarik ez zuena, eta modu kolektiboan arautuz, komunaren erabiltzaile bilakatu dena. Komun ororen atzean gobernantza sistema bat dago: baliabide mankomunatuaren gaineko irispide, erabilera, eta mantentze arauak ezartzen dituen, Ostrom-ek (1990) ezarritako printzipioen ildoan.

Kooperatibak, beste aldetik, egitura formaldun eragile ekonomikoak dira. Lanaren burujabetzan oinarrituriko ekoizpen modu alternatiboa egikaritzen dute, jarduera ekonomikoa burutzen duten kideen ongizatea bilatuko duena, beste ezeren aurretik. Kideen interesak lehenesteak, edo izaera mutual horrek, eragile pribatu bilakatu ditzake askoren begitan. Jabego kolektiboan eta kontrol demokratikoan sakontzeak, gainera, metaturiko kapitala edo sorturiko etekinak kooperatibako kideen mesedetan birbanatzea ekarri ohi du, komun kasuan gertatzen ez den bezala (hemen ez baita metaturiko kapitalik). Oso lehiakor eta arrakastatsuak suertatu diren kooperatiben kasuan, aldiz, gertatu izan dena da kapital pilaketak itsuturik ia mozkin

asmodun enpresa eredura antzaldatzea, beren errotze komunitariorik gutiz aldeniduz.

Komunitaterik gabe komunik ez den bezala, gerta liteke kooperatibek ia osorik galtzea beren errotze komunitarioa, ez soilik komunitate zabalagoari erreparatuta (lurralde mailakoa), baita “lan komunitateari” dagokionean ere. Logika kapitalistara errenditzeak bestelako endekapen kooperatiboko prozesuak ere ekarri izan ditu atzetik: kideen konpromezu falta, kooperatiben arteko lankidetzatza falta, etab. (Guttmann, 2021). Hortaz, kooperatiba osatu eta inguratzen duen ehun komunitarioan txertatzea da, askoren iritzian, kooperatibak eta beren printzipio bereizgarriak biziberritzeko biderik arrakastatsuenak.

Kooperatiba eta komunaren artean ezberdintasunak egon badauden arren, elkar hartze moduek ere badute ibilbide oparo bat eginga, baita aurrera begira garatzeko esparru zabal-zabal bat ere.

Izan ere, kooperatiba bat sortzea uler bailiteke bere horretan mankomunatzeko estrategia gisa. Lehendabiziko kooperatibek, XIX. mendekoak, langile klasearen bizi baldintzak hobetzea zuten xede nagusi. Honela, etxebizitza kooperatibak sortzeak, premiazko ondasun horrekiko atzipen herritarragoa baimentzen zuen. Kontsumo kooperatiben bitartez, komunean jarritako eta kudeaturiko elikagai premiazkoak kostu onargarriagotan salerostea baimentze zen. Lan elkartuko ekoizpen kooperatiba bat ere komun bat da bere horretan, jabeko kolektiboko enpresa den neurrian: lan kideen inbertsio pribatuarekin “finantza baliabide komun” bat sortzen da lehenik, gobernantza kooperatiborako ardurak ere ardura partekatu bilakatzen dira kideen artean, eta azkenik, ekoizpen kooperatibizatuak sorturiko etekinak erreserba moduan edo kideen lan baldintzen hobekuntza gisa itzultzen zaizkio lan komunitateari (Guttmann, 2021).

Komunaren eta kooperatibaren arteko bategite kontzeptuala agerikoa den bezala, Guttmann-ek (2021) gehituko du egun abagune egokia sortzen ari dela horiek modu zabalagoan elkar hartzeko. Izan ere, onartu beharrekoa da egun oraindik indarrean den eredu ekonomikoa kapital enpresek gidaturiko merkatu kapitalistena dela. Zentzu horretan, kooperatibek ez dute behar besteko indarrik izan eredu hegemonikoa auzitan jarriko lukeen hazkunde eta hedatze nahikorik izateko. Hazkunde mugatu horren kausak bila litezke faktore anitzetan, denak ere sarrera atal lan honen helburuen gainetik leudekeenak.

Euskal Herria moduren batean nahiko salbuespena ere bada, gai izan baita jendarte antolaketaren zenbait “erdigunetan”, industrian, finantza munduan, hezkuntzan, etab. mugimendu kooperatibo sendoa garatzeko. Dena den, Euskal Herriko mugimendu kooperatiboa ere ez da nazioarte mailan identifikaturiko zenbait “endekapen kooperatibo” prozesuetatik salbu: kideen engaiamendu falta, interkooperazioaren ahultzea, merkatu logiken gailentzea, kooperatiba askoren bideragarritasun ekonomiko zalantzarria, etab.

Hazkunde mugatu edo endekapen kooperatibo prozesu horien aurrean, Guttman-en (2021) ustea da ondasun komunen esparrua izan litekeela aipaturiko bi gaitzen soluzio bidea: hedapen kooperatiborako esparru berriak irekitzeaz bat, horiek ondasun komun “diseinu printzipioekin” sendotuz “endekapen” kooperatiboa leuntzeko bideak jar litezke.

Elkar hartzea, hortaz, bi zentzutan emango litzateke: kooperatibak sortzeak mankomunatzeko estrategia (zabalagoa) indartuko lukeen modu berean, ondasun komunetan kooperatibak garatzeak bidea zabalduko luke kooperatibak beren komunitateetan oster txertatzeko eta gobernantza kooperatiboa bera biziberritzeko ere.

1.4. Printzipio kooperatiboak printzipio komunekin berrindartu

Ezagunak dira munduan zehar Kooperatiben Nazioarteko Aliantzak 1995ko Manchesterreko batzarrean Identitate Kooperatiboari ezarritako 7 printzipio kooperatiboak: i) atxikipen libre eta irekia; ii) kideen kontrol demokratikoa; iii) kideen parte hartze ekonomikoa; iv) autonomia eta independentzia; v) hezkuntza, prestakuntza eta informazioa; vi) kooperatiben arteko lankidetzak; vii) komunitatearekiko ardura edo konpromisoa.

Guttman-ek (2021) printzipio kooperatiboak Ostrom-ek (1990) ondasun komuentzat ezarritako “diseinu printzipioekin” indartzeko saiakera interesgarria burutzen du, zeinetatik nabarmenduko baititugu honako indarguneak:

- Muga argien printzipioak bat egiten du atxikipen libre eta irekiko printzipioarekin puntu batean: kideen diren pertsonen konpromiso etikoa agertu behar dute kideen diren komunitatearekiko eta komunitateak kudeatzen duen ondasun edo jardueraren epe luzeko iraunkortasunarekiko.

- Korrespondentziaren printzipioak komunitateko kideek komunari emandako eta komunetik hartutakoaren arteko oreka bat bilatzen du, hirugarren printzipio kooperatiboaren ildo beretik. Kooperatiba zein komun kasuan, horiek arrakastatsuak dira kide bakoitzak bere “parteari” dagokion esfortzua eta saria jasotzen baditu, eta ez “free rider” portaerak ahalbidetzen baditu. Neurri berean, garrantzitsua da ekarpen hori tokiko baldintzetara egokitzea, edo tokiko komunitateen beharrianak kontuan hartuz egitea.
- Hautespen kolektiboko akordioen printzipioak bat egiten du kideen kontrol demokratikoaren printzipioarekin: erabaki hartze prozesuen demokrazia eta kolektibotasun gradua loturik dago informazio gardentasun zein erabakitze –tresnen eraginkortasunarekin.
- Kolektiboki ezarritako arauen aplikazioa betearazteko, beharrezkoak dira jarraipen eta berrikuspen eta zigortze mekanismo argiak. Horiek ez dira esplizituki jasotzen printzipio kooperatiboetan (bai ordea kooperatiba lege eta estatutuean), eta berebiziko garrantzia dute kooperatiben hazkunde prozesuetan. Mankomunatze arauak ahultzen hasten direnean, misio kooperatiboa ere arrakalatzen hasten da. Horien aurrean printzipio komunek eragin lezakete endekapen kooperatiboko prozesuetan: arau hausteen zigor mekanismoak ezarri eta gatazken kudeaketarako mekanismoak adostuz.
- Komunak eta kooperatibek berdin behar dute herri erakundearen aldetiko gutxieneko aitortza eta autonomia errespetatzea. Herri erakundeek babestu behar lukete komuneroen zein kooperatibisten eskubidea euren partekaturiko ondasuna gobernatzeko.
- Txertatutako enpresen komunitate-artearen sare horizontalen printzipioa eta kooperatiben arteko lankidetzarena ildo beretik doaz: komun zein kooperatiben eskalatze estrategiak inter-kooperazio logiketan gauzatzeak duen potentzialtasuna azpimarratzen du, elkarrekikotasun zein asoziazio praktiken bitartez. Komunak eta kooperatibak bestelako jendarte sare zabalagoetan txertatzeak berebiziko garrantzia du jarduera ekonomikoak jendartearen ongizatera eta natur baliabideen iraunkortasunera lerratzeko.

Azken ohartarazpen honek bidea irekita uzten digu Lankidetzaren Komunitario (publiko-kooperatiboaren) gaiari zehaztasun handiagoz heltzeko: interesgarria baldin bada komunitateak sendotzea lankidetzaren publiko-kooperatiboaren bitartez: nola harremanduko dira eragile horiek guztiak beren artean? Zein egituraketa moduren bidez? Eta zer egiteko, zehazki?

Horiek guztiak aletzen saiatuko gara datorren atalean.

2. Herri kooperatibak Lankidetza Komunitarioaren (Publiko-Kooperatibo) egituraketarako tresnak

2.1. Lankidetzaren deiturak: zer egingo dugu elkarrekin?

Erantzun komunitarioak har dezake ondasun komun baten kudeaketa arautzea edo kooperatiba bat sortzea. Bi horien arteko uztardurak sendotzeak sarri askotan lankidetza publiko-kooperatiboko egitura edo prozesu bat abiaraztea izan dezake ondorio. Lankidetza hori, ordea, eginkizun ezberdinetarako planteia liteke, eta beraz lankidetza horren deiturak ondo doitzeko, komeni zaigu aurretiazko argipen kontzeptual zenbait ezartzea.

Elkar-ekoizpena eta elkar-eraikuntza dira, oro har, azken hamarkadatan gailendu diren kontzeptu nagusiak, baina bistan denez, ez dute biek “ekintza komunitarioaren” estadio berdinetan eragiten. Are, horietako bakoitzaren definizioan ere ikuspegi aniztasuna da gailentzen dena.

Honela, elkar-eraikuntzaz dihardugunean, teorian elkar-ekoizpena baina adiera zabalago bati egin nahi zaio erreferentzia, nahiz eta zabaltze horrek noraino hartzen duen ez dagoen argi.

Zentzu horretan argigarriak dira Fraise-k (2022) eginiko zehaztapenak elkar-eraikuntzaren inguruan:

- Elkar-eraikuntza ez da kontsulta egitea herritarrei, ikuspegi ezberdinen arteko adostasun bat bilatuz ekintza bat abiatzeko;
- Elkar-eraikuntza ez da negoziazioa, ez baita interes kontrajarriek harturiko konpromisoan eraikitzen, ez bada kolektiboki eraikitako lehentasun eta konponbideetan;
- Elkar-eraikuntza ez da ituntzea, azken hori politika konkretu bat gauzatzeko modua baita, elkar-eraikuntza ez baita programa konkretu baten gauzatzea eta arazo bati irtenbidea bilatzea;
- Elkar-eraikuntza, gainera, elkar-ekoizpena baina harago doa, azken honek soilik hartzen baitu kontuan interes orokorreko zerbitzuen hornikuntzan hirugarren sektoreko eragileen parte hartzea (Pestoff, Brandsen eta Verschure, 2012);
- Elkar-eraikuntza, gainera, ez litzateke *Public-Social and Solidarity Economy Partnerships* edo Partzuergo Publiko-Kooperatibo batera mugatu behar, egitura partekatu hutsetik harago baitoa.

Ekintza publikoaren soziologiatik gerturatuta, Fraisse-k (2017:216) honako definizioa hobesten du elkar-eraikuntzarako: “politika publikoen elaborazio, inplementazio, monitorizazio eta ebaluazio faseetan eragile interesdun anitzen parte hartze antolatu eta irekia baimentzen duen prozesu eratzailea”. Definizio honek indargunea prozesu eratzailean jartzen du, eta ez soilik lankidetzak barnebildu behar lituzkeen eginkizunetan (diseinua, gauzatzea, ebaluazioa, etab.). Zentzu horretan, prozesuak eratzaile izateko gaitasuna du, demokrazia parte hartzaileko formuletan oinarritzen baita, autore honen irudiko, elkar-eraikuntza parte hartze politikoaren domeinukoa baita.

Elkar-ekoizpenak, bere aldetik, elkar-eraikuntzak baino ibilbide akademiko luzeagoa du, eta hedaduraz, interpretazio eta teorizazio ildo ugari identifika litezke.

Elkar-ekoizpenak, lehen kolpean, hiritarren edo zerbitzu publikoko erabiltzaileen parte hartzea esan nahi du zerbitzu horren horniduran, eta eragin positiboak auresuposatzen zaizkio nagusiki zerbitzuak modu efizienteagoan ematea ahalbidetzen duelako, herritarren aldetiko onarpen handiagoa izango duelako, eta baita egungo defizit demokratikoko arazoak gainditzeko lagundu dezakeelako, herritarrei ahots zuzenagoa emanez (Bance et al, 2022).

Hala ere, abiapuntuko ideia horrek fintze sakonagoa eskatzen du, Fraisse-ren (2022) irudiko ezinbestekoa baita galdetzea nork hartzen duen parte, lehenik, (nortzuk dira eragile inplikatuak?) eta zein helbururekin egiten den zer elkarrekin.

Bance eta Schoenmaeckers-ek (2021), zentzu horretan, berresten dute hiru izan direla azken urteetan lankidetzaren inguruan arakatu diren aztergai nagusiak: nortzuk hartzen dute parte eta zergatik? Zein harreman moduren bitartez? Eta zein modutan antolaturik? Galdera hirukoitz horrek lankidetzaren konposizioa, gobernantza sistema eta antolakuntza-egiturari erreparatzearen garrantzia mahai gaineratzen du.

Bance et al-ek (2022b), elkar-ekoizpenaren inguruko errepaso akademikoa burutuz, diferentzia nabarmenak identifikatzen dituzte atal ezberdinetan.

Alde batetik, ez dago argi elkar-ekoizpena soilik gertatzen den zerbitzuaren hornidura fasea, edo politika publikoaren diseinu, abiatze, eta inplementazio faseetan ere. Bestalde, ez dago argi herritar arruntak diren lankidetzaren zuzenki parte hartzen dutenak, edo herritar elkarteak edo erakundeak diren, zentzu zabalean, lankidetzaren egiten dutenak euren artean. Autore berdinek nabarmentzen dute, elkar-ekoizpen praktika horiek oso ezberdinak direla


lurraldez lurralde, eta oso baldintzatuak ageri direla faktore anitzen aldetik: tokiko erakundeen autonomia, ongizate estatuaren izaera, ekonomia sozialeko eragileen nolakotasuna, herritar pertzepzioa erantzun publiko, merkantil edo komunitarioen egokitasunaz, etab.

Bassi eta Fabbri-k (2022) ariketa interesgarria burutzen dute argipen kontzeptualari begira. Honela, elkar-ekoizpenaren lehen definizioak *management*-en inguruko literaturak eskaini zituen, zerbitzu publikoko erabiltzaileen (Osborne, 2016) edo oro har hiritarren (bezero, kontsumitzaile, bolondres edo elkarte komunitario) (Alford, 1998) parte hartzea aztertuz zerbitzu publiko horien ekoizpenean, ekoizpena zentzu zabaletik hartuz, zerbitzuaren diseinua, kudeaketa eta hornikuntza barnebilduz. Bance et al (2022) ere zerbitzu publikoen hornidura prozesuen “muinean” (*core*) herritarrak txertatzeaz mintzo dira, prozesu horien “muina” eta “azala” bereizteak dakartzan zailtasunaz ugariak direla aitortzeaz batera.

Geroztik ikerketa ildo ezberdinetatik garatu izan da elkar-ekoizpen kontzeptua, berdin kudeaketaren ikuspegitik, nola gizarte mugimenduen miratik, hiriguneen biziberritze estrategia gisa, edo zerbitzuen marketingetik, kudeaketa publikotik edo ondasun komunaren ildotik, azken aldian bereziki (Bassi eta Fabbri, 2022; Bance et al, 2022). Analisi horietan guztietan, herritarrek lankidetzan horietan joka ditzaketen rol ezberdinak kategorizatu dira (esploratzailea, soluzio-emailea, diseinatzailea, hedatzailea, gauzatzailea, sustatzailea,...) eta hedaduraz, lankidetzan hori gerta daitekeen esparruak identifikatu dira (diseinua, planifikazioa, kudeaketa, hornidura, ebaluazioa, etab.).

Bi plano bereizten dira, hala ere, nahiko argiki: bata da politikaren diseinua eta bestea da zerbitzuaren hornidura. Bassi eta Fabbri-k (2022) maila mikro eta makroko esparru horiek bereizteko, Elkar-sorkuntza adiera proposatzen dute, maila orokor batean ekoizle eta erabiltzaileen arteko elkarlan esparru oro barnebiltzeko. Elkar-sorkuntza prozesuen baitan fase edo maila ezberdinak ageri dira: lehen mailan zerbitzuaren diseinua legoke, gero ekoizpena edo zerbitzuaren prestazioa, ondoren inplementazioa (edo zerbitzu horniduraren mantenua) eta azkenik ebaluazioa (edo hobekuntza eta berrikuntza iradokizunak). Lehen bi mailatan elkar-gobernantza ematen da (diseinu + ekoizpenerako) eta elkar-kudeaketa, aldiz, ekoizpen eta inplementaziorako aktibatuko litzateke. Proposamen honen arabera, hortaz, elkar-ekoizpena mikro mailan edo zerbitzuen hornidura mailak soilik emango litzateke.

Irudia: Elkar-sorkuntzaren etapak



Iturria: Bassi eta Fabbri, 2022:103.

Kontrara, kudeaketa publikoko literaturaren aldetik, elkar-ekoizpenari zentzu zabalagoa eman izan zaio, ekoizpen hori zerbitzu publikoaren logikan txertatzen baita. Honela, Bovaird-ek (2007) lau maila berri proposatuko ditu lankidetzarako: martxan jartzea, diseinua, hornidura eta ebaluazioa. Martxan jartzeak barnebiltzen ditu: politikaren planifikazioa, zerbitzuen lehenestea (aurrekontu parte hartzaileen bidez, kasu), eta finantzazioa bermatzea; (elkar) diseinu fasean herritarrak erabiltzaile gisa txertatzen dira, zerbitzu diseinu laborategietan edo erabiltzaile batzordeetan; hornidura fasean zerbitzuaren kudeaketa eta inplementazioa gauzatzen dira, halako moduz ze erabiltzaile zein langileek modu partekatuan ekoizteko egiturak sortzen baitira; azkenik, (elkar) ebaluazio fasean, emandako zerbitzuaren gaineko balorazioa egiten da. Ekoizpen fasean herritarren ekintzak aktibatzen diren bitartean, beste hiruetan (martxan jartzea, diseinua eta ebaluazioa) herritarren ahotsa da bilatzen dena.

2.2. Lankidetza edo lehiakidetza: mugak eta arriskuak

Lankidetza komunitarioaren abantailez luze jardun dugu, nagusiki aipaturiko zerbitzu edo ondasuna modu efizienteagoan, onartuagoan eta demokratikoagoan kudeatzea ahalbidetzen duela sinetsita (Bance et al, 2022b). Zenbaitzuek sistema post-kapitalistarako ernamuin edo estrategia gisa ere hartu izan du, mankomunatzeko estrategiek sortzen dituzten jendarte eraldaketak zentzu horretan kokatuz (Linebaugh, 2009; Federici, 2012; Fournier, 2013; De Angelis, 2013; Dardot eta Laval, 2014; Boilier, 2016).

Nolanahi ere, lankidetza hori bilatze hutsak ez du bermatzen lankidetza hori elkarlanerako oinarri egokien gainean eraikitzea, eta hedaduraz, ezta lankidetza horren emaitzak esperotakoak izatea ere. Lankidetzak baditu bere mugak emaitzetan, badituelako bere hastapeneko baldintzapenak ere.

Baldintzapen horiek, nagusiki, elkarlanera deituta dauden eragile ezberdinen logika berezitueta oinarritzen dira. Bauby-k (2018) ikuspegi historikoa gehitzen dio uste honi: ekonomia sozialarena aspaldiko logika da, beharrian partekatuak asetzeko giza-gaitasunen elkartzea mundua eta gizadia bezain zaharra baita; aldiz, ekonomia publikoaren logika berriagoa da, mende bat pasatxo baino ez du, merkatu akatsen aurrean abiatu zen XIX. amaieran eta oinarritzko ondasun eta zerbitzuetara atzipen unibertsala bilatzen du, herritar ororena –elkartu ala ez- belaunaldi eta lurralde ezberdinetakoak izanik ere, eta hargatik behar du herri erakundeek antolatua izan.

Hari honi segituz, publikoak interes orokorra ase asmo du, eta sozialak elkarren arteko interesa edo interes mutuala. Hala ere biek egiten dute bat puntu zentral batean: ez da etekinen bilaketa horien sortze eta izateko arrazoia, ez bada jendarte beharrianak asetzeko. Zoru partekatu horren gainean historia da testigu bi eragileok tentsio mota ezberdinen gainean eraiki izan dutela euren arteko elkarlana, batzuetan lankidetza interesgarrien bitartez, bestetan aurkakotasun agerikoekin, edo besterik gabe elkar apenas aintzatetsiz. Bauby-k (2018) sakoneko tentsio horiek frikzio edo marruskadura puntu ezberdinetan kokatzen ditu: merkatuan jarduten edo ez, etekinik baduten edo ez, estatu akatsak ala merkatu akatsak asetzen dituzten, goitik-beherako edo behetik-gorako logiketan oinarritzen diren, egitura handiak ala ertain-txikiak diren...horietako puntu bakoitzean logika soziala eta publikoa erpin ezberdinetan koka daitezke, eta horrek, elkarlanerako oinarriak zoru ezegonkor gainean ezartzea dakar.

Lankidetza publiko-kooperatiboaren arriskuen analisisian, Combes-Joret, Lethielleux eta Reimat-ek (2018) nagusiki erreparatzen diete bi alde

identitate berezituak errespetatuko dituen lankidetzak moldeei, horietako baten identitate galerak lankidetzaren potentzialtasuna apalduko bailuke, dudarik gabe. Ikusi behar litzateke, beraz, ea lankidetzak honek ekonomia sozialeko erakundea zerbitzu hornitzaile huts bilakatzen duen, beronen gaitasun berritzailea ezeztatuz; eta ea izaera berritzaile hori mantentzeak interes orokorreko zerbitzuren hornidura bera ere itxuraldatzen duen, ala ez.

Erakunde publikoak, bere aldetik, zerbitzuaren kalitate eta bideragarritasunaz ardura hartuz, ekonomia sozialeko eraileen autonomia muga lezake, horiek zerbitzu prestatzaile huts bihurtuz; ekonomia sozialeko eragileek, beren aldetik, geroz eta zerbitzu gehiagoren bilaketan logika lehiakorretan eror litezke, beti ere kostuetan lehiatzearen logika arriskutsuak barneratuz eta jendarte eraldaketan eragiteko gaitasuna galduz.

Lankidetzak publiko-kooperatiboaren izaera beraz bi hortzeko labana da: ekonomia sozialaren izaera berezitua da erakunde publikoa beronen lankidetzak bilatzera daramana, baina aldi berean, lankidetzak horren garapena bera da ekonomia sozialaren izaera berezitua ezabatzea ekar lezakeena.

Gogoeta orokor horretatik ebidentzia enpirikoetara jaitsiz, Bassi eta Fabbrik (2022) lankidetzak horien “alde ilunak” identifikatzeko, abiapuntuko baldintzapen batzuk igartzen dituzte:

- Lehen lehenik, lankidetzak denbora eskatzen du, edo “denbora kontsumo altuko” prozesuak eskatzen ditu. Epe luzean parte hartzaileen engaiamendua mantentzea zaila izaten da.
- Bigarren, parte hartzen duten herritarrak sarri askotan baldintza sozio-ekonomiko egokiagotan dauden horiek dira, denbora dutenak, hortaz lankidetzak horretatik kanpo gera litezke honen onuradun nagusi liratekeen giza talde horiek.
- Hirugarren, teknikari publikoek erresistentziak agertu ohi dituzte beren lan prozeduretan berrikuntzak sartzeko. Askotan horien engaiamendua modu “formal” batean ematen da, elkar-ekoizpenaren erretorika onartu bai baina praktikarik aldatu gabe.
- Laugarren, lankidetzaren emaitzak ebaluatzeak zailtasunak ageri ditu, faktore askok baldintzatua baitator. Nagusiki begiratu behar litzateke ea politikaren helburua betea den, eta horretarako, helburua bera da ondo definitu behar litzatekeena (herritarren ardura handitzea? parte hartzea handitzea? zerbitzuaren kostua apaltzea? kalitatea hobetzea?)

- Bosgarren, herri erakundeen egitura burokratikoek erabaki-gune eta prozedura oso hierarkikoak ezartzen dituzte, sarri askotan erabaki ahalmena politikarien aldera lerratuz, teknikarien kaltetan.

-

Abiapuntuko oztopo horiez gain, egile berberak dokumentaturiko lankidetzak ezberdinetatik ateratako irakaspenek aditzera ematen dute hiru logika gatazkatsuren arteko talkak sortu izan direla han eta hemen (Bassi eta Fabbri, 2022): i) aditu edo profesionalen irizpidea, herritarren irizpidearen aurka; ii) zerbitzuaren logika, langile sindikatuen logikaren aurka; iii) herri-erakundeen logika, ekonomia sozialeko logikaren aurka.

Lehenik, herri erakundeetako arduradun eta langileen (goi-erdi-behe mailako teknikariak) garrantziari ez zaio behar besteko arretarik eskaintzen, sarri askotan elkar-ekoizpenaren arrakastaren giltza bertan egon arren. Herri-erakundeen goitik beherako logikak, ezarritako programak inertziaz errepikatzeko joera sortzen du, eta ondorioz, aukerak murriztu ditzake kudeaketa mailako berrikuntzak onartzeko. Langile horiengan jarrera irekiago eta proaktiboagoak lortzeko pizgarri izan litezkeen egiturazko neurriak arakatzea ezinbestekoa litzateke.

Bigarrenik, elkar-ekoizpenean herritarren parte hartzea maila indibidualean landu izan da sarri, erabiltzaile den neurrian, baina arreta gutxiago eskaini izan zaio herritar antolatu edo elkarte herritarren parte hartzeari, izan hirugarren sektore edo ekonomia sozialeko egituren bitartez. Horien parte hartzea handia izanik ere han eta hemen, lan handia dago elkar-ekoizpena zer den eta zer ez ondo bereizteko: informazioa partekatzea, kontsultak egitea, hirugarren sektorearen lobby funtzioa,...politika publikoetan eragin ahal izateko hirugarren sektoreak darabiltzan tresna ohikoenak, denak ez dira elkar-ekoizpena.

Honek beste afera garrantzitsu bat mahai-gaineratzen du: nori irekitzen zaion elkar-ekoizpenerako aukera, eta zein modutan, guztiz baldintza dezake bilaturiko helburuan aurreratzea edo atzera egitea: herritar parte hartzean, hain zuzen ere. Parte hartzen duten eragileen arteko botere harremanak ez badira nolabait orekatzen, herritarren ahotsa lehen baino isilaraziagoa gera liteke, finean. Egoera hau bereziki larritu liteke zerbitzuaren emaile (profesionalak) eta hartzaileen artean ezagutza arrakala handia den kasuetan (osasun, hezkuntza edo gizarte zerbitzuen kasua). Kasu horietarako, hirugarren sektore edo ekonomia sozialeko eragileen ordezkaritza eta bitartekaritza lan hori ezinbestekoa begitantzen da.

Herritarrak ahalduentzeko eta beharrak kolektibizatzekeo tresna diren neurrian ekonomia sozialeko eragileen parte hartzea legitima litekeen bezala, hor ez da amaitzen afera: arretaz begiratu behar dira lankidetzaren bilakaeran gerta litezkeen “isomorfismo” egoerak, non ekonomia sozialeko eragileak erreproduzitu egin ditzakeen eragile publikoaren zenbait praktika desegoki (burokratizazioa, gehiegizko profesionalizazioa, berrikuntza falta, etab.). Aurrerago ikusiko den moduan, lankidetza iraunkorra izatea nahi bada, bi aldean identitate berezituaren errespetuaren gainean eraikia behar du izan.

Aipaturiko muga eta arrisku horiez gain, Bance et al-ek (2022) arreta berezia eskaintzen diote gobernantza-sistemaren egokitasunari. Elkar-ekoizpenak duen konplexutasun mailari erantzutekeo, lankidetza hau joko-arau esplizitu eta adostuen gainean eraiki behar da, baita horiek modu partekatuan berrikusi ere. Gatazkak ez baitira soilik sortzen eragileen arteko botere asimetrien kausaz, baita engaiaturiko eragileen perspektiba edo espektatiba ezberdinen arteko talkagatik ere. Lankidetzan diharduten eragileak aldatzen doazen neurrian (aldaketa politikoei lotuta, belaunaldi aldaketei lotuta....) lankidetzaren parametroak ere berrikusteko mekanismoak ezartzea garrantzitsua da.

2.3. Lankidetzaren tipologiak: eredu teorikoak

Aipatu bezala, Ives Vaillancourt (2008) eta Bernard Enjolras-en (2008) lanak hartu izan dira eredu horien kategorizaziorako lehen erreferentzia teoriko gisa. Honela, antzekotasun handia ageri zaigu Vaillancourt-ek (2008) deitzen duen “Elkar-eraikuntza demokratikoa” eta Enjolras-en (2008) “gobernantza partenarial edo partzuergozkoa”-ren artean. Goazen banan bana.

Vaillancourt-ek (2008) lau eredu ezberdin nabarmentzen ditu, eta arreta bereziki jartzen du politika publikoen eraikuntzan. Honela, eraikuntza prozesu horietan parte hartzen duten eragile kopuru eta motaren arabera, eta lankidetza horien izaera eta helburu nagusiak gurutzatuz, ondorengo taulan jasoko ditugun lau ereduak proposatzen ditu:

Taula 1: Politika publikoen elkar-eraikuntza ereduak

Bakar-eraikuntza	Herri erakundeek, kasu honetan, politika publikoen gainera ardura eskusibotasunez hartzen dute beregain, bestelako eragile ez publikoei sarbidea eman ahal zaielarik baina soilik zerbitzuaren hornikuntza fasean, elkar-ekoizpen ereduak sortuz.
Elkar-eraikuntza neoliberala	Kasu honetan, erakunde publikoek sektore pribatuko eragileekin lankidetzan garatzen dituzte politika publikoak, sarriaskotan cuasi-merkatuen bidez. <i>New Public Management</i> bezala deitu izan dena den kudeaketa ereduak bultzaturiko <i>Public-Private-Partnerships</i> ereduak jasoko lirateke bertan.
Elkar-eraikuntza korporatista	Eredu honen baitan jasotzen dira parte interesatu edo giza talde konkrituak ordezkatzan dituzten erakunde ordezkarien lankidetzak politika publikoen elaborazio fasean, langileen edo enpresaburuen ordezkariak izanik adibide ohikoenak.
Elkar-eraikuntza demokratikoa	Elkar laguntzan oinarrituko sistema litzateke, interes orokorraren zerbitzura jarria. Lau ezaugarri osatuko lukete berau: sektore publikoa da arduradun nagusia, eta berea da erabakien gainera azken hitza; erakunde publikoak gizarte zibiletik sorturiko ekimenetako kide izatea sustatzen du; demokrazia ordezkagarria eta parte hartzailearen arteko oreka bilatzen du; ekonomia sozialeko eta elkartegintza munduko eragileak aitortzen ditu lankidetzarako eragile gisa.

Iturria: Vaillancourt (2008) (itzulpena geurea)

Bistan denez, Elkar-eraikuntza demokratikoko ereduak da ekonomia sozialeko edo herrigintzako eragileen parte hartzera irekia agertzen den eredu bakarra, nahiz eta oraindik ñabardura asko definitzeke geratzen zaizkigun: parte hartze hori zertarako egiten den, zein gobernantza ereduren baitan, zein erakundetze edo egituratze formalen bitartez, etab.

Bernard Enjolras-ek (2008) politika publikoen ikuspegi hertsia hori apur bat zabaltzeko eta “gobernantza-sistemen” adiera hobetsiko du bere kategorizazio ereduak. Honela, interes orokorra sustatzen duten ekintza publikoetan jarriko du arreta, baina politika publikoari berezkoak zaizkion tresna koertzitiboetara jo gabe. Ekintza publikoko modu berri horiek akordio instituzional anitzen bitartez egikaritzen dira, honek “gobernantza sistema” bezala deitzen dituenak.

Orotara lau dira Enjolras-ek (2008) proposatzen dituen ereduak: publikoa, korporatista, lehiakor eta partenariala. Lehenak Vaillancourt-en bakar-eraikuntza ereduaren antza handia du, eta zerbitzu publikoen hornikuntza eredu frantziarra, non estatuak soilik hartzen duen parte, du adibide nagusi.

Eredu korporatistak, aldiz, inspirazio alemaniarrari eusten dio gehiago, non “lehentasunezko tratua” ematen baitzaie tradizionalki gizarte ekintzaren esparruan jardun duten mozkin asmorik gabeko erakundeei, zerbitzu publiko gisa aitorturikoa azpikontratazio bidezko hornidura bidez eskainiz. Eredu lehiakorak, *New Public Management* ereduak hauspotua eta Erresuma Batuan bereziki hedatua, lehia bidezko harremanak sustatzen ditu zerbitzu publiko baten hornidurarako aurkezten diren eragile pribatuen artean. Azkenik, eredu partenarialak eredu quebequiarra du miran, lankidetza bidezko harremanak hobesten baititu merkatuzko harreman lehiakor edo kontratu bidezkoen aurretik, eta bereziki bilatzen baitu lankidetza hori ekonomia sozial eta solidarioko eragileekin egitea.

Aipaturiko “governantza sistema” edo “politika publikoen elkar-eraikuntza” eredu horietan guztietan ekonomia sozialeko eta herri erakundeen artean sortzen diren harreman motak oso izaera ezberdinekoa izan daitezke. Gauza bat baita lankidetzan aritu nahia, eta bestea zein tresna formal baliatzen diren lankidetza hori gauzatzeko.

Zentzu horretan, argigarria zaigu Coston-ek (1998) aurretiaz ezarritako harreman moduen tipologia bat berreskuratzea, horren gainean garatu baitira bestelako zenbait kategorizazio lan ere. Autore honen proposamena garatzen dugu jarraian agertzen den taulan:

Taula 2: Ekonomia soziala eta herri erakundeen arteko harreman moduak

Kontratazioa	Herri erakundeek formalki kontratatzen dituzte ekonomia sozialeko eragileak zerbitzu ezberdinen prestaziorako.
Hirugarren aldea	Herri erakundeek lehentasunak ezarri eta baliabideak lortu ostean, ekonomia sozialeko eragileen esku uzten dute prestazioa bera.
Lankidetzaz	Baliabideak eta informazioa partekatuak dira, ekonomia sozialeko eragileen herri erakundeetatik ezarritako irizpideak jarraitzen dira, eta herri erakundeen aldetik ez dago ekonomia sozialeko eragileekiko lehentasunezko traturik.
Osagarritasuna	Hiru osagarritasun modu ezberdin agertzen dira: lehena, “filantropikoa”, herri erakundeek ekonomia sozialeko eragileen esku uzten dute tokiko mailako zenbait zerbitzuren hornidura, tokiko arduradun publikoekin harremanetan; bigarrenak, “bitartekaritza” ereduak, ekonomia sozialeko eragileek zenbait gobernu funtzioaren zuzendaritzan parte hartzeko aukera irekitzen da; hirugarrena, “lagunduriko autonomiadunak”, ekonomia sozialeko eragileek tokiko ekimenen kanalizatzaile gisa jokatzeko dute.
Elkar-erakuntza eta elkarlana	Informazio eta baliabideen partekatze osoa, eta baterako ekintza.

Iturria: Coston (1998) (itzulpena geurea).

Ereduetan gehiago sakonduz, harreman modu horietan, intentsitate formal eta informal ezberdineko harremantze moduak ahalbidetu daitezke.

Kontratu bidezko harreman batek ez du zertan, *a priori*, lehentasunezko tratatu bat ezartzen ekonomia sozialeko eragilearekin, honek bestelako eragile pribatuekin lehiatzen baitu zerbitzuaren lizitaziorako.

Hurrengo hiru ereduak, hirugarren aldekoak, lankidetzazkoak eta osagarritasunezkoak, bai ezartzen dute ekonomia sozialeko eragileekin gertutasun maila handiago bat. Honela, hirugarren aldeko ereduak, erakundeetatik zenbait tresna juridiko ezartzen dira (nagusiki hitzarmenak edo ituntzeak) zerbitzu konkretu batzuk ekonomia sozialeko erakundeen aldetik eskainiak izan daitezen; lankidetzazko harremanek, urrats bat gehiago emanez, informazio eta baliabide publikoen partekatzea eskatzen du, baina harremana oraindik modu asimetrikoan gauzatzen da, herri erakundeena baita “joko arauak” ezartzeko eskubidea; osagarritasuneko harremanetan, aldiz, bikoizketak ekiditea da bilatzen dena, hau da, bi erakundeek zerbitzu bera ez ematea, eta beraz, herri erakundeek ekonomia sozialeko erakundeen esku uzten dituzten funtzio ezberdinetan, ardura azken honen eskuetan geratzen da.

Azkenik, osagarritasunezko eta elkar-erakuntzazko ereduen arteko alde nagusia horien formalizazio mailan ageri da: lehen aukeran harremanak informalagoak izan ohi dira, elkar-erakuntza ereduak formalizazio maila handiagoa eskatzen duen bitartean, egitura partekatu formalak, elkarrekin diseinaturiko planak, edota gobernu egitura kolegiatuak. Elkar-erakuntzak esan nahi du, gainera, lankidetzak ekintza publikoaren fase guztietan ematen dela, diseinuan, planifikazioan, eta baita inplementazioan ere, zerbitzu bat kontratu bidez eskaintzea baino askoz inplikazio handiagoko harremanetxe eskema baten bidez.

Orain arte xehatzen joan garen tipologizazio ariketa hau modu argigarrian jasotzen dute Savard, Robichaud eta Tremblay-k (2009), jarraian agertzen dugun taulan:

Taula 3: Ekonomia soziala eta herri erakundearen arteko harreman dimentsioak

Harremanetxe dimentsioak	Harremanetxe moduak				
	Kontratazioa	Hirugarren aldea	Lankidetzak	Osagarritasuna	Elkar-erakuntza
Pluraltasun instituzionalerako irekiera	Baxua	Ertaina	Ertaina	Altua	Altua
Harremanen intentsitatea	Baxua	Baxua	Ertaina	Altua	Altua
Botere harremanen simetria maila	Ertaina	Ertaina	Baxua	Ertaina	Altua
Harremanen formalismo maila	Altua	Altua	Baxua	Ertaina	Altua

Iturria: Savard et al (2009)

Azken taula honetan harreman dimentsio ezberdinak xehatzearekin bat, aurretiaz ezarritako harreman modu ezberdinen lotzen zaizkien ezaugarrietan sakontzen da gehiago, halako moduz ze:

- Kontratu bidez harremanak formalismo maila altuko harremanak ezartzen baitu, nahiz eta intentsitate eta instituzionalizazio maila apalak azaldu. Honen azalpena kontratu publikoaren izaeran bertan datza, simetria ertaineko ereduak suposatzen baitu, herri erakundeak gordetzen baitu beti kontratuari luzapena eman edo eteteko erabakia.

- Hirugarren aldeko ereduak kontratu bidezko ereduari gehitzen diona, hortaz, plano instituzionalean agertzen da: ekonomia sozialeko erakundeek aitortza berezitu maila handiagoa dute herri erakundeen aldetik, eta honen ondorioz, zenbait zerbitzu publiko aldez edo moldez horientzat erreserbatzeko tresnak baliatzen dira.
- Lankidetza ereduak, bere aldetik, intentsitate eta instituzionalizazio maila altuagoak ageri ditu, baina formalismoan galtzen du, eta hedaduraz, botere harremanen simetrian. Herri erakundeak dira lankidetzaren terminoak zehazten dituztenak, baina aldi berean, irekiera maila handiago batekin ekonomia sozialeko eragileekiko, baliabide eta informazio publikoaren parte bat partekatuz. Eredu parte hartzaileago bati buruz arituko ginateke, baina parte hartze hau maila informatibora mugatuz, ez erabakitze mailara.
- Osagarritasun ereduak bi aldeen arteko koordinazio maila handiagoa eskatzen du, herri erakundeek beren eginkizunen zati bat delegatzen baitute ekonomia sozialeko eragileengan. Horrek harremanaren sendotasun maila handiagoa eskatzen du, eta hedaduraz, irekiera instituzional handiagoa. Ekonomia sozialeko eragileek erabakiguneetarako irispidea dute, baina ez dute herri erakundeen botere maila bera erabakitzerako orduan. Lankidetza, zentzu horretan, maila informalean ematen da gehiago, eta ez du behartzen herri erakundea “berdinen arteko” harremana ezartzera. Kudeaketa partekatu baila bat ematen da, baina erabaki ahalmen bera partekatu gabe.
- Elkar-eraikuntza ereduan harreman formal bat ezartzen da bi aldeak behartzen dituen “berdinen arteko” harreman batera, eta era berean, irekiera instituzional eta harremanen intentsitate handia eskatzen da, elkarren artean diseinaturiko politikak elkarrekin hornitzearaino. Hauxe litzateke gure Lankidetza Komunitario proposamenetik gertuen legokeen eredu teorikoa.

Eredu nagusien gainean ñabardura eta ezaugarri gehigarriak lantzeak, nahasmena sor dezakeen arren, zenbait espero gabeko errealiteren aurrean topa gaitzkeela jabetzeko ere balio du. Izan ere gerta baitaiteke harreman oso formalizatu baina intentsitate baxukoan aurrean egotea. Baita, alde erantzira ere: intentsitate altuko harremanak baina formalizaziorik gabekoak. Elkar-eraikuntza demokratikoak bide eman behar luke aukerarik egokienak sortzeko ekonomia soziala eta herri erakundeen arteko harreman sendoei sostengu formala eta erabakitzeko gaitasun partekatua ziurtatzeko.

Horixe bera izan liteke ulertua bi aldeen arteko harreman osasuntsu gisa, askoren ustean, eta aurretiaz aipatu ditugun tentsio eta logika kontrajarriak aintzat hartuz, bi aldeen berezko logiketara doitu litzatekeen oreka bilatzea litzateke helburua.

Lankidetza hori iraunkorra izateko baldintza idealak proposatzen ditu Brinkerhoff-ek (2002:21), modu honetan zehaztuaz: “eragileen arteko harreman dinamikoa litzateke, helburuak modu adostuan ezarriz, funtzioen banaketa ahalik eta arrazionalenaren gaineko ikuskera partekatu batekin, eragile bakoitzaren abantaila konparatiboak aintzat hartuz. Lankidetza honek elkar-eragite eta elkarrekikotasun maila bat dakar, sinergia eta autonomiaren arteko oreka ondo zainduz eta elkarrekiko errespetuaz gain, erabakitze maila partekatu bat eta kontu hartze eta gardentasun ariketa arduratsua eginez” (itzulpena geurea).

Combes-Joret et al-ek (2018) aztertu moduan definizio horrek lankidetzari eragiten dioten sei elementu barnebiltzen ditu gutxienik:

- Elkarrekin modu adostuan ezarritako helburuak
- Kontsentsu bidez kolektiboki harturiko erabakiak
- Prozesu eta egitura horizontalak, ez hierarkikoak
- Konfiantzan oinarrituriko harreman formal eta informalak
- Kideen arteko elkarrekintza sinergikoa
- Ondorioen eta emaitzen gaineko ardura partekatua.

Prozedura eta egituren gaineko zehaztasun horiez gain, Combes-Joret et al-ek (2018) lankidetzaren iraunkortasunerako berebiziko garrantzia duten bi ardatz analitiko mahai gaineratzen dituzte: elkarrekikotasuna eta identitatea.

Elkarrekikotasunak eskubide eta betebeharrak partekatuak ezartzen ditu, baita helburu adostuen gaineko konpromiso handia ere. Elkarrekikotasuna elkarmendekotasuna eta elkarrekintza inplikatzeko ditu. Beste aldetik, identitateak, eragile bakoitzak bere misio eta printzipioekiko gorde beharreko koherentzia nabarmentzen du. Bi ardatz horien gurutzaketak lau elkarrekintza mota sortuko ditu, jarraian garatzen dugun taulan jasota geratzen diren gisan:

Taula 4: Lankidetza iraunkorrerako ardatzak: elkarrekikotasuna eta identitatea

Elkarrekikotasuna	Sendoa	Ahula
Identitatea		
Sendoa	Partzuergoa Elkarrekikotasuna eta identitatea goren graduan. Kideak elkarren mendekoak dira, eta helburuak partekatuak dira.	Kontratuzkoa Erakunde publikoak ESSko eragilearen ezaugarri eta identitatea bilatzen ditu helburu konkretuak lortzeko.
Ahula	Kooptazioa Bitarteko eta helburuan gaineko adostasuna egon arren, eragileetako batek nagusitasunezko jokaera duen bigarren eragilearekiko mendekotasuna ageri du. Lankidetza honek lehenaren identitate galera dakar.	Hedadura Identitate ahuleko egiturak dira, esaterako eginkizun konkretuak burutzeko gobernuak sorturiko erakundeak. ESSko eragileak identitate ahula du, eta gobernuak ezarritako planen gauzatzaile gisa jarduten du.

Iturria: Brinkerhoff (2002) (Itzulpena geurea)

Atal honekin ixteko, beraz, ondoriozta liteke denboran iraunkorrak diren lankidetza moduek elkarrekikotasun eta identitate sendoko orekak bilatzen dituztela, lankidetza horrek inoren identitatean gatazkarik sortu gabe, eta era berean, kontratu bidezko formulek baina elkarrekikotasun maila handiagoko ereductara joz.

Erreferentzia bibliografikoak

Alford, J. (1998) , A public management road less traveled: Clients as co-producers of public services. *Australian Journal of Public Administration*, 57(4), pp. 128–137. doi.org/10.1111/j.1467-8500.1998.tb01568.

Bance, P. (dir)(2018): *Providing public goods and commons. Towards coproduction and new forms of governance for a revival of public action*, CIRIEC Studies Series – No. 1, Université de Liège, Liège.

Bauby, P. (2018) “Conditions of convergence between public economy and social economy organisations. From the diversity of models to a successful hybridisation through new governance” in Bance, P. (dir): *Providing public goods and commons. Towards coproduction and new forms of governance for a revival of public action*, CIRIEC Studies Series – No. 1, Université de Liège, Liège.

Bance, P. eta Schoenmaeckers, J. (2021): The increasing role and the diversity forms of Commons for production and preservation of essential goods and services, *Annals of Public and Cooperative Economics*, 92:5-12.

Bance, P., Bouchard, M; Greiling, D. (eds)(2022), *New perspectives in the co-production of public policies, public services and common goods*, CIRIEC Studies Series – No. 3, <https://doi.org/10.25518/ciriec.css3book>.

Bance, P., Bouchard, M; Greiling, D. (eds)(2022b), *Conclusions and Directions for further Research* in Bance, P., Bouchard, M; Greiling, D. (eds)(2022), *New perspectives in the co-production of public policies, public services and common goods*, CIRIEC Studies Series – No. 3, <https://doi.org/10.25518/ciriec.css3book>.

Bassi, A. eta Fabbri, A. (2022): Co-production paradigm: Threat or Opportunity for Social Economy? In Bance, P., Bouchard, M; Greiling, D. (eds)(2022), *New perspectives in the co-production of public policies, public services and common goods*, CIRIEC Studies Series – No. 3, <https://doi.org/10.25518/ciriec.css3book>.

Bollier, D. (2016). Commoning as a transformative social paradigm. *The Next System Project (blog)*, 28 April. Retrieved from <https://thenextsystem.org/commoning-as-a-transformative-social-paradigm>

Bovaird, T. (2007), Beyond Engagement and Participation: User and Community Coproduction of Public Services, *Public Administration Review*, September/October, 846-860.

Brinkerhoff, J. M. (2002): “Government-Nonprofit partnership: a defining framework”, *Public Administration and Development*, 22(1): 19-30.

Camus, A. (2014): “Les relations entre les organisations du tiers secteur et du secteur public : recension des principales approches conceptuelles”, *Revue Interventions économiques*, 2014: 50.

Combes-Joret, M., Lethielleux, L. y Reimat, A (2018): “Cooperation strategies between public and social economy: How to cooperate without losing your “soul”” in Bance, P. (dir): *Providing public goods and commons. Towards coproduction and new forms of governance for a revival of public action*, CIRIEC Studies Series – No. 1, Université de Liège, Liège.

Coriat, B. (2015)(dir.), *Le retour des communs, La crise de l'idéologie propriétaire*, Paris, Les liens qui libèrent.

Coston, J. M. (1998): “A model and typology of government-NGO relationships”, *Nonprofit and Voluntary Sector Quarterly*, 27(3): 358-382.

Dardot, P. et Laval, C. (2014): *Commun. Essai sur la révolution au XXI^e siècle*, Paris, La Découverte.

De Angelis, M. (2007). *The beginning of history: Value struggles and global capital*. London: Pluto Press.

Delalieux, G. (2010): “Politiques publiques et commercialisation des pratiques associatives : le cas du label social et environnemental d'une ONG française”, *Revue Politiques et Management Public*, 27(1): 97-118.

Enjolras, B. (2008): “Régimes de gouvernance et intérêt général” in Enjolras B. (ed.), *Gouvernance et intérêt général dans les services sociaux et de santé*, Collection « Economie sociale et Economie publique » N° 1, Bruxelles, Peter Lang.

Federici, S. (2012). Feminism and the politics of the commons. In D. Bollier&S.Helfrich: *The wealth of the commons: A world beyond market and state*. Amherst, MA: Leveller Press.

Fournier, V. (2013). Commoning: On the social organisation of the commons. *Management*, 16, 433–453.

Fraisse, L. (2022): Social and solidarity economy and the co-construction of a new field of local public policies in France, in Bance, P., Bouchard, M; Greiling, D. (eds), *New perspectives in the co-production of public policies, public services and common goods*, CIRIEC Studies Series – No. 3, <https://doi.org/10.25518/ciriec.css3book>.

Guttmann, A. (2021): Commons and cooperatives: A new governance of collective action, *Annals of Public and Cooperative Economics*, 92:33–53.

Hardin, G. (1968). The tragedy of the commons. *Science*, 162, 1243–1248

Linebaugh, P. (2009). *The Magna Carta manifesto: Liberties and commons for all*. Berkeley, CA: University of California Press.

Osborne, S.P., Radnor, Z. eta Strokosch, K (2016). Co-Production and the Co-Creation of Value in Public Services: A suitable case for treatment?, *Public Management Review*, 18:5, 2016, 639-653.

Ostrom, E. (1990), *Governing the Commons: The Evolution of Institutions for Collective Action*, NY, Cambridge University Press.

Ostrom, E. (2007). Sustainable social–ecological systems: An impossibility? Rochester, NY: Social Science Research, Network.

Ostrom, E. (2010). Beyond markets and state: Polycentric governance of complex economic systems. *American Economic Review*, 100, 641–672.

Pestoff, V., Brandsen, T., Verschuere, B. (2012), “Co-production: The State of the Art in Research and the Future Agenda”, *Voluntas: International Journal of Voluntary and Nonprofit Organizations*, 23, 4, p. 1083-1101.

Proulx, J., Bourque, D., Savard, S. (2005) *Les interfaces entre l’Etat et le tiers secteur au Québec*, Cahiers de l’ARUC-ÉS, C-01-2005, UQAC.

Savard, S., Robichaud, S., Tremblay, S. (2009): “Les modèles de relations partenariales dans le secteur du soutien à domicile québécois”, *Intervention*, 2009, 131: 249-260.

Turiel, A. (2020): *Petrocalipsis, crisis energética global y cómo (no) lo vamos a solucionar*, Alfabeto, Madril.

Vaillancourt, Y. (2008): “Social Economy in the co-construction of public policy, La démocratisation des politiques publiques : Une vision canadienne et québécoise”, *Canadian Social Economy Research Partnerships*, Occasional Paper Series, 3.

HERRI KOOPERATIBEN BIDERAGARRITASUN JURIDIKOA EUSKAL HERRIAN

Aitor Bengoetxea Alkorta

1 Sarrera

Txosten honen objektua da erakunde publikoen eta kooperatiben arteko lankidetza publiko komunitariorako aukera juridikoak aztertzea, herri kooperatiba deituko dugun formularen bitartez.

Azterketaren esparru geografikoa Euskal Herria da, bere osotasunean hartuta, eta baita ere zatika, egungo esparru juridiko-politiko formalen arabera. Lurralde esparruari dagokionez, kooperatibaren hedaduraren arabera, bost atal desberdindu ditugu: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea, Hego Euskal Herria, Ipar Euskal Herria, eta Euskal Herri osoa.

Helburu nagusia da ikustea, dagokion lurralde esparruan aplikatu beharreko zuzenbidearen arabera, zeintzuk diren herri kooperatibak sortu eta funtzionatzeko aukera desberdinak.

Metodologiari dagokionez, iturri nagusia esparru bakoitzean aplikatu beharreko zuzenbide positiboa izan da. Batez ere, zuzenbide kooperatiboa, tokiko erakundeen zuzenbidea, eta kontratu publikoen zuzenbidea. Gaia lantzen duen oinarritzko bibliografia kontsultatu da ere.

Txostenaren egiturari dagokionez, ondorengo bost atalen sailkapenak gorago aipatutako kooperatibaren lurralde esparruaren irizpideari erantzuten dio: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea, Hego Euskal Herria, Ipar Euskal Herria, eta Euskal Herri osoa. Horren ostean, txosten osoaren konklusioak, erabilitako araudiaren eranskina, eta oinarritzko bibliografiaren eranskina daude.

2 Euskal Autonomia Erkidegoko herri kooperatiben bideragarritasuna

Sarreran aipatu dugun moduan, administrazio publikoen eta kooperatiben arteko lankidetza garatzeko, aukera desberdinak daude.

Lurraldearen ikuspegitik, argi gera bedi, administrazio publikoaz ari garenean, gehienbat udalerrietaz eta tokiko zerbitzu publikoetaz ari garela.

Baina legeak argi uzten du udalerrien arteko lankidetza bitartez lurralde esparru zabalagoko subjektu juridiko-publikoak egon daitezkeela tokiko zerbitzu publikoen arduradun gisa, hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztien sarea; lurralde historiko bat edo gehiago biltzen dituen sarea; edo eskualde mailako udalerri sareak¹.

Sare horiek, besteak beste, mankomunitate² edo partzuergoen³ forma juridikoak har ditzakete.

Beraz, kooperatibekin lankidetza publiko-komunitarioa gauzatuz, lurralde esparru desberdinetako erakunde publikoak izan daitezke protagonista.

Lankidetza motaren ikuspegitik, juridikoki, lau bide nagusi desberdin ditzakegu. Lehenengo bietan, administrazio publikoa kooperatibako bazkidea da. Beste bietan, administrazioa ez da kooperatibako bazkide.

- Administrazio publikoak zerbitzu publikoen kooperatiba sorraraztea. Administrazio publikoak kooperatiba sortzea sustatzen du eta, sortzen denean, kooperatibako bazkidea da.
- Administrazio publikoa kooperatibako bazkide izatea. Administrazio publikoa edozein kooperatibako bazkide izan daiteke.
- Administrazio publikoak kontratua egitea kooperatibarekin.
- Administrazio publikoak lankidetza hitzarmena egitea kooperatibarekin.

1 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 99.1 art: “Udalerrien eta gainerako toki-erakundeen lurralde arteko elkarlana, autonomia-erkidegoaren mailako, lurralde historiko bateko edo gehiagotako eremuko, edo aipatu berri diren horiek baino eremu txikiagoetako beste sare batzuen bitartez gauzatu ahal izango da, aplikatu beharrekoa den araudiarekin bat”.

2 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 102.1 art: “Udal-elkarteak eta toki-erakundeen bestelako elkarte-motak eratu ahal izango dira, kudeaketa partekatua egiteko baliabide egoki gisa”. Udal-elkarteak dioenean mankomunitateaz ari da.

3 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 104.1 art: “Udalerriek eta gainerako toki-erakundeen partzuergoak eratu ahal izango dituzte beste administrazio publiko batzuekin, tokiko zerbitzu publikoak emateko”.

Lau kasu horietan lankidetza gauzatzen da, baina juridikoki aukera oso desberdinak dira. Ikus ditzagun bakoitzaren gakoak.

2.1 Administrazio publikoak zerbitzu publikoen kooperatiba sorraraztea

Esanguratsua dirudi Euskadiko Kooperatiba Legeak espreski aurreikustea *zerbitzu publikoko kooperatibak* deitzen dituenak. Zerbitzu publikoak ematen dituzten kooperatibak dira⁴.

Gainera, kooperatiben aldeko aldarrikapen nabarmena eginez, legeak botere publikoei agintzen die formula hori bultzatzea zerbitzu publikoak hobetzeko.

Idea da administrazio publiko batek parte hartzea zerbitzu publikoen kooperatiba baten sustatzaile gisa. Hortik aurrera, irekita dago aukera baita ere sustatzaile izateko dagokion sektorean esperientzia duten entitate pribatuak; kooperatibak ematen dituen zerbitzuaren erabiltzaileak; eta kooperatiba horretako langile-bazkideak.

Benetan interesgarria da legeak mahai gainean jartzen duen aukera. Kooperatibaren sustatzaile gisa, ezinbestean, administrazio publikoa dugu, modu horretan bultzada eta konpromiso publikoa bermatuz. Aldi berean, aukera dago sustatzaile ere entitate pribatuak izateko, esparru komunitarioaren ordezkari gisa, besteak beste elkarteak edo kooperatibak. Eta baita ere kooperatibistak, langile-bazkide gisa, ala erabiltzaile gisa.

4 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 157.3 art: “Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek kooperatibak sortzea eta haiek zerbitzu publikoen kudeaketan parte hartzea bultzatuko dute, zerbitzu publikoak garatzeko eta hobetzeko. Ildo horretan, botere publikoek aurreikusi ahal izango dute zerbitzu publikoko sozietate kooperatiboak sortzea zerbitzu publiko horiek emateko, kontratazio publikoko araubidea erregulatzen duten legezko eta erregelamenduzko xedapenen arabera; zerbitzu horietatik kanpo utziko dira agintaritza publikoa erabiltzea eskatzen duten zerbitzu publikoak. Sozietate kooperatibo horietan, bazkide sustatzaile modura parte hartuko dute eskumena duten entitate publikoek eta, hala badagokio, eta kontratazio publikoko printzipioei jarraituz, sektorean esperientzia dutela erakusten duten entitate pribatuek; era berean, kooperatibaren helburu sozialaren parte diren zerbitzuen erabiltzaileek eta sozietatean lan egiten duten bazkide langileek ere parte hartu ahal izango dute. Nolanahi ere, entitate publiko sustatzaileek kontrolatuko dituzte zerbitzu publikoak emateko baldintzak”.

Legeak muga batzuk ezartzen ditu, zeharo ulergarriak. Alde batetik, dioenean kooperatibek kudeatu ditzaketen zerbitzu publikoak ezin dutela suposatu autoritatearen egikaritza. Bestalde, administrazio sustatzaileak kontrolatuko ditu zerbitzu publikoa emateko baldintzak. Izan ere, zerbitzu publikoa kooperatibak ematen du, baina azken arduraduna administrazio publikoa da, berea baita zerbitzu publikoaren eskumena.

Zerbitzu publikoen kooperatibaren kasuan, tokiko administrazioak sorrarazitako erakundea izango litzateke kooperatiba, zerbitzu publikoak kudeatzeko zeregin zehatzarekin. Toki Erakundeei buruzko legeak espreski jasotzen du aukera hori⁵. Legeak ulertzen du kasu honetan administrazio lokala zuzenean ari dela zerbitzu publikoa ematen, sustatu duen zerbitzu publikoen kooperatibaren bitartez.

Zerbitzu publikoen kooperatiba sortzen denean, administrazio publikoa kooperatibako bazkide bihurtzen da. Legeak ez du zehazten zein bazkidetza mota edukiko duen administrazioak. Bazkidetza mota guztiak, ondoko atalean ikusiko ditugu.

2.2 Administrazio publikoa kooperatibako bazkide izatea

Herri kooperatibak interes orokorreko aktibitate kooperatibizatua egiten duenean, administrazio publikoaren eta kooperatibaren helburuek bat egiten dute, neurri batean behintzat, eta bien arteko lankidetzak gauza daiteke administrazio publikoa kooperatibako bazkide bihurtuz.

Euskadiko Kooperatiba Legeak espreski dio administrazio publikoak kooperatibetako bazkide izan daitezkeela, kooperatibak administrazioen eskumeneko esparruko zerbitzuak ematen dituztenean. Teknikoki administrazio publikoaren izaera duten erakundeetaz gain (batez ere udala), izan daitezke kooperatibako bazkide izaera juridikoa duten bestelako erakunde publikoak: enpresa publikoak, erakunde autonomoak, edota fundazio publikoak⁶.

⁵ 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 94.1 art: “Tokiko zerbitzu publikoak zuzenean kudeatu ahal izango dira, erakundeak berak eginkizun hori hartuta, edo horretarako sortutako beste erakunde edo elkarte batzuen bidez”.

⁶ 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 19.7 art: “Administrazio publikoek eta haien mendeko ente instrumentalek ere bazkide izateko aukera izango dute, kooperatibaren helburua bada entitate horien zerbitzuei lotutako

Behin argi utzita, modu esplizituan, udala kooperatibako bazkide izan daitekeela, gaian sakontzeko, kontuan hartu behar dugu hiru bazkidetza aukera nagusi daudela: bazkide kooperatzaile, bazkide laguntzaile, edo bazkide kapitalista.

Lehen aukera izango litzateke administrazio publikoa kooperatibako bazkide arrunta izatea. Kooperatibetako bazkide pertsona fisikoak ala juridikoak izan daitezke, pribatu nahiz publikoak, beraz, ez dago inolako oztopo tekniko-juridikorik administrazio publiko bat, udal bat adibidez, kooperatiba bateko bazkide kooperatzaile arrunta izateko⁷.

Bazkide kooperatzailearen izaeraren gakoa da aktibitate kooperatiboan parte hartzen duela. Lan-kooperatiba baldin bada, langile-bazkide gisa; kontsumo kooperatiba baldin bada, bazkide kontsumitzaile gisa, etab⁸.

Udal batek erabakitzen duenean zerbitzu publiko bat, zuzenean eman beharrean, kooperatiba batekin lankidetzan ematea, zaila da lankidetzat hori gauzatzea udala kooperatibako bazkide kooperatzaile bihurtuz. Zerbitzu publikoa zuzenean eman ez, eta gero zuzenean parte hartzea zerbitzu hori emanik, kooperatibako kooperatzaile gisa? Ez dirudi oso logikoa.

Dena den, ikuspegia aldatuz gero, zerbitzua ematetik kontrako kokapenera baldin bagoaz, zerbitzuaren kontsumitzailearen lekura alegia, zentzuduna izan daiteke udal bat kontsumo kooperatiba bateko bazkide kooperatzaile izatea, bazkide kontsumitzaile arrunt gisa. Edo herri kooperatiba integral batean, lana eta kontsumoa kooperatibizatu dituen, udala bazkide kontsumitzaile izatea. Adibidez, energia arloko kontsumo kooperatiba batean, udala bazkide kontsumitzaile izatea.

zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea, betiere prestazio horiek ez badute ekartzen edo eskatzen agintaritzat publikoaren egikaritzat”.

7 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 19.1 art: “Kooperatibetako bazkide izan daitezke pertsona fisiko zein juridikoak, publiko nahiz pribatuak”. 19.2 art.: “Kooperatibetako bazkideak honako modalitate hauetakoren batean sartuko dira: a) Bazkide kooperatzaileak”.

8 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 19.3 art: “Bazkide kooperatzaileak dira pertsona fisiko edo juridikoak, kooperatibaren jardueran langile edo erabiltzaile gisa benetan parte hartzen dutenak”.

Bigarren aukera bazkide laguntzailearena da. Laguntzaile deitzen zaio ez duelako zuzenean parte hartzen aktibitate kooperatiboan, baina laguntzen du kooperatibaren helburua lortzen⁹.

Agintearen ikuspegitik, bazkide laguntzaileek badute muga bat, ezingo baitute eduki botoen herena baino gehiago, ez batzar orokorrean, ezta ere artezkaritza-kontseiluan. Muga horren atzean dagoen ideia da, azken finean, kooperatiba bateko protagonista nagusiak buru-belarri inplikatzaren diren bazkide kooperatzaileak direla, aktibitate kooperatiboa egiten dutenak, eta bestelako bazkideek ezin dutela kooperatibaren norabidea baldintzatu eta kontrolatu.

Zalantzarik gabe, figura hau oso erabilgarria izan daiteke herri kooperatibetan, udalak, aktibitate kooperatiboa zuzenean egin gabe, kooperatibaren laguntzaile gisa jarduten duenean, kooperatibak eta udalak partekatzen duten helburu publiko komunitarioa lortze aldera.

Besteak beste, pentsa genezake eraikin publikoen erabilera uztearen ekarpena egiten duen udal batean, bazkide laguntzaile gisa, eraikin horretan bazkide kooperatibistek aktibitate kooperatiboa egin dezaten.

Hirugarren aukera da administrazioa publikoa bazkide kapitalista izatea, kooperatiba mistoetan¹⁰.

Kooperatiba mistoek izen hori dute nolabait kooperatiben izaera desnaturalizatzen duen formula kooperatibo-kapitalista direlako.

Sozietate batek izaera pertsonalista ala kapitalista izatean dago gakoa. Kooperatibak sozietate pertsonalistak dira, eta sozietatea bera pertsonen ardatzaren inguruan eraikitzen da. Horregatik, botoak ez dira banatzen

9 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 19.5 art: “bazkide laguntzaileak izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, kooperatibaren helburu soziala bete-betean aurrera eramaterik ez badute ere helburua lortzen lagun dezaketenak. Bazkide horien multzoak ezin izango du, ez batzar orokorrean, ez artezkaritza-kontseiluan, botoen herena baino gehiago izan”.

10 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 19.6 art: “Kooperatiba mistoetako gutxiengoko bazkideak dira sozietate-zatien titular izanik boto-eskubidea duten bazkideak”.

kooperatibista bakoitzak egin duen kapital ekarpenaren kopuruaren arabera. Printzipio kooperatibo klasikoari jarraiki, pertsona bat, boto bat¹¹.

Hala ere, salbuespenak daude, eta horien artean aurkitzen da kooperatibetan aukera dagoela, estatutuetan horrela adostuz gero, entitate publikoen botoa kooperatibarekin duten aktibitatearen arabera izateko, eta ez boto bakarra, pertsona juridiko soil gisa¹².

Aitzitik, sozietate kapitalistak kapitalaren ardatzaren inguruan eraikitzen dira, eta kapitalak baldintzatzen du botoa; hainbat kapital, halako boto kopurua¹³.

Kooperatiba mistoetan, bazkide kapitalistek ez dute aktibitate kooperatiborik egiten. Kooperatibari egiten dioten ekarpena, hain zuzen ere, kapital ekarpena da. Eta kapitalaren arabera izango da beren boto eskubidea.

Beraz, bazkide kapitalistaren aukera honetan, administrazioak herri kooperatibari egiten dion ekarpena kapital kopuru bat izango litzateke, modu horretan kooperatibak beteko duen funtzio publiko-komunitarioari ekonomikoki lagunduz.

Dena den, gorago bazkide laguntzaileen kasuan esan den moduan, kooperatiba legediak nahi du bazkide kooperatibistek mantentzea kontrola, eta horregatik, bazkide kapitalisten boto kopurua mugatuta dago; gehienez %49a¹⁴.

11 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 37.1 art: “Kooperatibetan, bazkideek boto bana izango dute”.

12 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 37.2 art: “Estatutuetan honako hau aurreikusi ahal izango da lehen mailako kooperatibei dagokienez: pertsona juridikoak diren bazkideen boto-eskubidea –kooperatiben, kooperatiba horiek kontrolatutako sozietateen eta entitate publikoen bazkideena– kooperatibarekin duten jardura-mailaren edo kooperatiba horien arteko harremanetan osagarriak diren prestazioen neurriaren arabera izatea”.

13 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 155.1 art: “Kooperatiba mistoak dira bazkide minoritarioak dituztenak, zeinen batzar orokorreko boto-eskubidea ekarri den kapitalaren arabera modu eksklusiboan edo lehentasunezkoan zehaztu ahal izango den”.

14 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 155.3 art: “a) Boto guztien ehuneko berrogeita hamaika, gutxienez, bazkide kooperatzaileei emango zaie; b) Boto guztien ehuneko berrogeita bederatziko kuota, gehienez ere, boto-eskubidea duten sozietate-zatien artean banatuko da”.

Hala ere, kooperatibako kontrola dela eta, ondokoa nabarmentzea komeni da. Kooperatiba mistoetan, bazkide laguntzaileak bazkide kooperatibista kontsideratzen dira¹⁵. Administrazio publiko bat, aldi berean, kooperatibako bazkide laguntzaile eta bazkide kapitalista izan daiteke. Kasu horretan, bazkide kapitalistei dagozkien botoen %49ra arte eduki ditzake, eta bazkide kooperatzaileei dagozkien gutxieneko %51 horretako zati bat ere eduki dezake, bazkide laguntzaile gisa. Hortaz, administrazioak, edo beste edozein subjektuk, kooperatiba mistoaren kontrola eduki dezake, bazkide kooperatzaileek kooperatibaren kontrola eduki gabe.

Beste aukera bat da administrazio publikoa bazkide izatea kooperatiba integral batean. Kooperatiba integrala, gorago esan dugun moduan, funtsean lana eta kontsumoa kooperatibizatzen dituen da, kooperatiba integral bakarraren baitan.

Kooperatiba integralen kasu tipikoena irakaskuntza kooperatibena da, kooperatibizatzen direnean irakaskuntzaren eskaintza eta baita ere eskaria. Formula honetan, hezitzaileak eta administrazioko langileak kooperatibista dira (langile-bazkide); eta ikasleak edota beren ordezkariak irakaskuntza zerbitzuaren bazkide kooperatibista erabiltzaile edo kontsumitzaile dira¹⁶.

Kooperatiba integraletan administrazio publikoak bazkide gisa parte hartzeko, gorago ikusitako hiru aukerak gerta daitezke: bazkide kooperatzailea; bazkide laguntzailea; edo bazkide kapitalista.

Bestalde, kooperatiben arteko interkooperazioaren printzipioa gauzatuz, kooperatiben kooperatibak sor daitezke, bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatiba deritzanak. Kooperatiba desberdinez osaturiko kooperatiba taldeak dira.

15 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 19.5 art: “Bazkide laguntzaileak kooperatiba mistoekiko bakarrik hartuko dira bazkide kooperatzailetzat”.

16 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 109.4 art: “Estatutuetan aurreikusiz gero, integrala edo sektoreartekoa izan daiteke irakaskuntza-kooperatiba; horretarako, batetik, gutxienez irakasle eta irakasle ez diren langile gehienak bildu behar dira, eta, bestetik, ikasle gehienak edo haien ordezkari gehienak; edo, bestela, halako gehiengoetara iritsi gabe, mota horretako kooperatiba bat sortzeko estatutuetan eskatzen den bazkide kopurura heldu beharko da talde bi horietako kideekin”.

Berez, legea malgua da, eta bigarren mailako kooperatibako kide guztiek ez daukate, halaberharrez, kooperatibak izan beharrik. Legeak atea irekitzen die ondoko subjektuei: kooperatibak, bazkide diren langileak, eta beste edozein pertsona juridiko, publiko nahiz pribatuak. Baita ere, espreski aurreikusten da bigarren edo maila handiagoko kooperatibetan bazkide laguntzaileak egoteko aukera.

Dena den, aginteari dagokionez, legeak dio kooperatibak ez diren pertsona juridikoek gehienez bigarren mailako kooperatiba gobernatzeko botoen erdia edukiko dutela, eta estatutu bitartez gehieneko hori murriztu daitekeela¹⁷.

Beraz, bigarren maila edo maila handiagoko kooperatibetan administrazio publikoak egon daitezke, kooperatiba mota berezi hauetako bazkide kooperatibista gisa, edo bazkide laguntzaile gisa.

Gorago ikusi ditugun kasuetan administrazioa kooperatibako bazkidea zen. Kasu horietaz gain, komeni da azpimarratzea, kooperatiben aktibitatearen arabera, aukera dagoela administrazio publikoak kooperatibari aitorpen berezi bat egiteko, estatus juridiko propioa emanez: gizarte ekimeneko kooperatibak, eta onura publikoko kooperatibak.

Gainera, bi kasuetan, administrazio publikoa kooperatibako bazkide izan daiteke, gorago ikusi dugun moduan.

Gizarte ekimeneko kooperatibak irabazi asmorik gabekoak dira, eta gizartearen oinarritzko beharritan erantzuten diete: hezkuntza, osasuna, kultura, etxebizitza, elikadura, edota finantzak. Baita ere merezi dute aitorpen hori gizarte bazterketa egoeran daudenak laneratzean saiatzen direnak¹⁸.

17 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 147.1 art: “Sozietate hauetako eskubide osoko kide izan daitezke maila beheagoko kooperatibak eta lan-bazkideak eta izaera publiko edo pribatuko entitate eta pertsona juridikoak, betiere interes edo premia berak badituzte eta estatutuak hori galarazten ez badu. Entitate horiek, guztira, ezin daitezke izan bigarren edo mailako handiagoko kooperatibaren boto guztien erdia baino gehiago. Estatutuetan, muga baxuago bat ezarri ahal izango da. Aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, halako kooperatibek bazkide laguntzaileak onartu ahal izango dituzte lege honen 19.5 artikuluaen arabera”.

18 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 156.3 art: “Alde batera utzita zer motatakoak diren, irabazi-asmorik gabeko kooperatiba-entitateak

Aipaturiko estatus berezi hori islatzen da, besteak beste, gizarte ekimeneko kooperatiben fiskalitatean.

Onura publikoko kooperatiben kalifikazioa jasotzen dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorra sustatzen laguntzen duten kooperatibak dira. Aitorpen horrek izaera kuasipublikoa ematen die kooperatibei, betetzen duten funtzioaren arabera¹⁹. Gizarte ekimeneko kooperatiben kasuan bezalaxe, onura publikoko kooperatibek ezin dute irabazi asmorik eduki.

Legeak espreski zerrendatzen ditu onura publikoko kooperatiben eskubide bereziak, batez ere, beraien aktibitatearen inguruko araugintzan entzunak izatea, dirulaguntzak, eta onura fiskalak²⁰.

Zalantzarik gabe, ikusi ditugun baldintzak betez gero, txosten honetan aztertzen ari garen herri kooperatibek gizarte ekimeneko kooperatiben aitorpena edota onura publikoarena lor ditzakete, aitorpen horiek dakarzkiten onurak profitatuz.

2.3 Administrazio publikoak kontratua egitea kooperatibarekin

Administrazio publikoek kontratu administratibo mota desberdinak egin ditzakete, baita ere kooperatibekin: obra kontratua, obra emakida, hornikuntza, zerbitzuen kontratua, eta kontratu mistoa.

gizarte-ekimeneko kooperatibatzat joko dira, baldin eta helburu sozialtzat badute asistentzia-zerbitzuak ematea osasun- hezkuntza- eta kultura-jardueren edo gizarte-izaerako bestelako jarduera batzuen bidez, edo helburutzat badute gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonen laneratzea eta, oro har, merkatuak erantzuten ez dituen gizarte-premiak asetzea; betiere erregelamenduz ezarritako prozedura, araubidea eta betekizunen arabera”.

19 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 156.2 art: “Eusko Jaurlaritzak onura publikoko kooperatibatzat joko ditu beren funtzioak garatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorra sustatzen laguntzen duten kooperatibak, betiere erregelamenduz ezartzen diren prozedura, araubide eta betekizunen arabera”.

20 Euskadiko Kooperatiba Legeko 156.2 art: “Eskubide hauek izango dituzte onura publikoko deklarazioa lortzen duten kooperatibek: a) Dokumentu guztietan, «onura publikokoa» aipamena erabiltzea entitatearen izenaren ondoan. b) Beren iritzia entzunda izatea, dagokien federazio edo konfederazioen bidez, beren jarduerari zuzenean lotutako xedapen orokorrak edo beraientzako programa garrantzitsuak prestatzen direnean. c) Kasu bakoitzean onartzen diren salbuespenak, hobariak, dirulaguntzak eta gainerako onura ekonomiko, fiskal eta administratiboak izatea”.

Kontratu mota edozein dela ere, nabarmendu behar da kontratu publikoen legeak espreski azpimarratzen duela administrazio publikoek gizarte ekonomiako enprekin kontratatzea erraztuko dutela, irizpide sozialak eta ingurugirokoak aintzat hartzearekin batera²¹.

Kontratuen legea gizarte ekonomiaz ari denean, zalantzarik gabe, bete-betean kooperatibetan pentsatzen ari da, horiek baitira gizarte ekonomiaren sektoreko osagai tradizional eta nagusiak. Izan ere, gizarte ekonomiako legeak²² jasotzen dituen gizarte ekonomiako printzipioak, neurri handi batean, printzipio kooperatiboetan inspiratuta daude²³.

Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiben legeak, ildo beretik, azpimarratzen du kontratu administratiboetan, adjudikazioduna aukeratzeko

21 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 1.3 art: “En toda contratación pública se incorporarán de manera transversal y preceptiva criterios sociales y medioambientales siempre que guarde relación con el objeto del contrato, en la convicción de que su inclusión proporciona una mejor relación calidad-precio en la prestación contractual, así como una mayor y mejor eficiencia en la utilización de los fondos públicos. Igualmente se facilitará el acceso a la contratación pública de las pequeñas y medianas empresas, así como de las empresas de economía social”.

22 Ley 5/2011, de 29 de marzo, de economía social, 4. art: “Las entidades de la economía social actúan en base a los siguientes principios orientadores: a) Primacía de las personas y del fin social sobre el capital, que se concreta en gestión autónoma y transparente, democrática y participativa, que lleva a priorizar la toma de decisiones más en función de las personas y sus aportaciones de trabajo y servicios prestados a la entidad o en función del fin social, que en relación a sus aportaciones al capital social. b) Aplicación de los resultados obtenidos de la actividad económica principalmente en función del trabajo aportado y servicio o actividad realizada por las socias y socios o por sus miembros y, en su caso, al fin social objeto de la entidad. c) Promoción de la solidaridad interna y con la sociedad que favorezca el compromiso con el desarrollo local, la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres, la cohesión social, la inserción de personas en riesgo de exclusión social, la generación de empleo estable y de calidad, la conciliación de la vida personal, familiar y laboral y la sostenibilidad. d) Independencia respecto a los poderes públicos”.

23 Nazioarteko mugimendu kooperatiboan, 1995eko Manchesterreko Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren Kongresuan onarturiko printzipio kooperatiboak ondoko zazpiak dira: Atxikitze irekia eta borondatezkoa; kudeaketa demokratikoa; kideen partehartze ekonomikoa; autonomia eta independentzia; heziketa, formazioa, eta informazioa; interkooperazioa; komunitatearekiko interesa.
<https://www.ica.coop/es/cooperativas/identidad-alianza-cooperativa-internacional#toc-principios-cooperativos>

orduan berdintasuna balego, berdintasun hori hausteko irizpideen artean kooperatiben lehentasuna aintzat hartu behar dela²⁴.

Kontratu publikoen legeak, aldiz, berdintasuna hausteko irizpideen artean, ez ditu espreski kooperatibak aipatzen, baina bai irabazi asmorik gabeko enpresak²⁵. Gorago ikusi dugun moduan, kooperatibak sarritan irabazi asmorik gabekoak dira, eta horregatik hain zuzen ere jasotzen dituzte estatus berezia aitortzen dizkioten kalifikazioak: gizarte ekimeneko kooperatibak eta onura publikoko kooperatibak.

Txosten honetako aztergaia den lankidetza publiko-komunitarioaren bitartez ematen den interes publikoko zerbitzu batean ari gara pentsatzen. Eta, horretarako, egokiena zerbitzuen emakidako kontratua litzateke. Dena den, ikus ditzagun, azaletik baldin bada ere, gainerako kontratuak.

Obra kontratuaren objektua da enpresa batek, kooperatiba izan daitekeena, obra jakin bat egitea administrazioarentzat²⁶. Obra emakidaren kontratuan, aldiz, enpresa emakidaduna da, eta, modu egonkorrean, obraren

24 11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa, 157.2 d) art: “Euskal administrazio publikoek eta beren mendeko enteek bultzatuko dute sozietate kooperatiboen lehenespen-eskubidea jaso dadila, administrazio-baldintzen orrian berdinketa hausteko jasotzen diren irizpideen artean, beraiek deitutako obra-, zerbitzu-eta hornidura-kontratueta adjudikazioetan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoari jarraituz”.

25 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 147.1 c) art: “En la adjudicación de los contratos relativos a prestaciones de carácter social o asistencial, las proposiciones presentadas por entidades sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica, siempre que su finalidad o actividad tenga relación directa con el objeto del contrato, según resulte de sus respectivos estatutos o reglas fundacionales y figuren inscritas en el correspondiente registro oficial”.

26 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 13.1 art: “Son contratos de obras aquellos que tienen por objeto uno de los siguientes: a) La ejecución de una obra, aislada o conjuntamente con la redacción del proyecto, o la realización de alguno de los trabajos enumerados en el Anexo I. b) La realización, por cualquier medio, de una obra que cumpla los requisitos fijados por la entidad del sector público contratante que ejerza una influencia decisiva en el tipo o el proyecto de la obra”.

esplotazioaren arduradun eta onuraduna litzateke²⁷. Hornikuntza kontratuan administrazioak kooperatiba baten produktuak alokatu edo erosten ditu²⁸.

Zerbitzuen kontratuan administrazioak kooperatibaren zerbitzua kontratatzen du, diruaren truke²⁹. Kontratu honen eta zerbitzuen emakida kontratuaren arteko desberdintasun nagusia da zerbitzu kontratuan aktibitate ekonomiko horren arriskua administrazioak hartzen duela bere gain; eta zerbitzu emakidaren kontratua arriskua emakidadunak hartzen du, hots, kooperatibak.

Kontratu mistoa ikusi berri ditugun mota desberdinetako kontratuen objektuak barneratzen dituen da³⁰.

Zalantzarik gabe, uste dugu zerbitzu publikoaren emakida administratiboa aukera baliagarria izan daitekeela lankidetzak publiko-komunitarioaren ibilgailu juridiko gisa.

Zerbitzuaren emakidaren kontratuan, administrazio publiko batek bere eskumenekoa duen zerbitzu publiko bat ematea enpresa baten esku uzten du, kooperatiba izan daitekeena. Emakidadunak zerbitzuaren ustiapena egingo

27 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 14.1 art: “La concesión de obras es un contrato que tiene por objeto la realización por el concesionario de algunas de las prestaciones a que se refiere el artículo anterior, incluidas las de restauración y reparación de construcciones existentes, así como la conservación y mantenimiento de los elementos construidos, y en el que la contraprestación a favor de aquel consiste, o bien únicamente en el derecho a explotar la obra en el sentido del apartado cuarto siguiente, o bien en dicho derecho acompañado del de percibir un precio”.

28 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 16.1 art: “Son contratos de suministro los que tienen por objeto la adquisición, el arrendamiento financiero, o el arrendamiento, con o sin opción de compra, de productos o bienes muebles”.

29 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 17 art: “Son contratos de servicios aquellos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o suministro, incluyendo aquellos en que el adjudicatario se obligue a ejecutar el servicio de forma sucesiva y por precio unitario”.

30 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 15. art: “1. El contrato de concesión de servicios es aquel en cuya virtud uno o varios poderes adjudicadores encomiendan a título oneroso a una o varias personas, naturales o jurídicas, la gestión de un servicio cuya prestación sea de su titularidad o competencia, y cuya contrapartida venga constituida bien por el derecho a explotar los servicios objeto del contrato o bien por dicho derecho acompañado del de percibir un precio. 2. El derecho de explotación de los servicios implicará la transferencia al concesionario del riesgo operacional, en los términos señalados en el apartado cuarto del artículo anterior”.

du, zerbitzua erabiltzen dutenei prezioa kobratuz, eta irabazi horretaz gain administrazioak ordaintzen duen prezioa egon daiteke. Gorago aipatu dugun moduan, kooperatiba emakidadunak aktibitatearen arriskua bere gain hartzen du³¹.

Gainera, zerbitzuen emakidaren kontratuaren testuinguruan, kontratua egiten duen administrazio publikoa kooperatiba emakidadunako bazkide izan daiteke, gorago ikusi dugun moduan, gehienbat bazkide laguntzaile ala bazkide kapitalista.

2.4 Administrazio publikoak lankidetza hitzarmena egitea kooperatibarekin

Lehenik eta behin komeni da argitzea lankidetza hitzarmena ez dela inoiz kontratu bat³². Helburu komun baten alde elkarlanean aritzeko egiten dira halakoak. Lankidetza hitzarmenak erakunde publikoen artean egin daitezke, ala erakunde publiko batek erakunde pribatu batekin³³. Guri interesatzen zaigun aukera, betiere lankidetza publiko-komunitarioaren ikuspegitik, bigarrena da³⁴.

Gorago landu dugun kontratu publikoen legeak argi uzten du lankidetza hitzarmena ez dela kontratu bat, berak erregulatzen duen kontratuen esparrutik kanpo kokatzen dituen lankidetza hitzarmenak³⁵.

31 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 18.1 art: “Se entenderá por contrato mixto aquel que contenga prestaciones correspondientes a otro u otros de distinta clase”.

32 Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, 47.1 art: “Los convenios no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en la legislación de contratos del sector público”.

33 Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, 47.1 art: “Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común”.

34 Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, 47.2 c) art: “c) Convenios firmados entre una Administración Pública u organismo o entidad de derecho público y un sujeto de Derecho privado”.

35 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 6.2 art: “Estarán también excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que

Gainera, beste pasarte batean kontratu publikoen legeak Autonomia Erkidegoen eskumena aitortzen du, izaera sozialeko zerbitzu publikoak kudeatzeko kontraktuz kanpoko bideak garatzen dituzten legeak sortzeko³⁶. Izaera sozialeko zerbitzu publikoetaz ari denez legea, aukera bereziki egokia dirudi gizarte ekimeneko kooperatibek parte hartzeko.

Beraz, lankidetza hitzarmenaren bitartez kooperatiba batek zerbitzu publiko bat eman dezake. Zalantzarik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoan, formula hori gehien erabiltzen den sektorea hezkuntzarena da. Hezkuntza kooperatibek, batez ere ikastolek (baina ez bakarrik ikastolek), hezkuntzaren zerbitzu publikoa ematen dute, administrazio publikoarekin egiten duten hezkuntza itunaren bitartez. Itun horren arabera, hezkuntza kooperatibek diru publikoa jasotzen dute.

Dekretu autonomiko batek arautzen ditu hezkuntza arloko itunak³⁷. Dena den, une honetan hezkuntza lege berria sortzen ari da, itunen araudi berria ekarriko duena.

3 Nafarroako Foru Erkidegoko herri kooperatiben bideragarritasuna

Atal honetan aztertuko dugu Nafarroa Garaian edo, juridiko-formalki, Nafarroako Foru Erkidegoan, administrazio publikoen eta kooperatiben arteko lankidetza publiko komunitarioa bideratzeko erabil daitezkeen bide juridikoak.

Lurralde ikuspegitik, lankidetza hori garatzeko nafar administrazio publikoetaz ari garenean, Foru Erkidegoko Administrazioaz eta tokiko entitateetaz ari gara. Tokiko entitateen artean, nagusia udalerria da, baina

su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales”.

36 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria: “Legislación de las Comunidades Autónomas relativa a instrumentos no contractuales para la prestación de servicios públicos de carácter social. Lo establecido en esta Ley no obsta para que las Comunidades Autónomas, en el ejercicio de las competencias que tienen atribuidas, legislen articulando instrumentos no contractuales para la prestación de servicios públicos destinados a satisfacer necesidades de carácter social”.

37 293/1987 Dekretua, irailaren 8koa, Hezkuntza Itunei buruzko Erreglamendua.

horretaz gain baditugu Kontzejua; talde tradizionalak³⁸; eta mankomunitateak³⁹.

Mota bateko ala besteko nafar administrazio publikoek nafar kooperatibekin garatu ditzaketen lankidetza formula desberdinak lau motetan sailkatu ditzakegu. Lehenengo bietan, administrazio publikoa kooperatibako bazkidea da. Beste bietan, administrazioa ez da kooperatibako bazkide.

- Administrazio publikoak zerbitzu publikoa emango duen kooperatiba mistoa sorraraztea. Administrazio publikoak kooperatiba sortzea sustatzen du eta, sortzen denean, kooperatibako bazkide kapitalista da.
- Administrazio publikoa kooperatibako bazkide izatea. Administrazio publikoa edozein kooperatibako bazkide izan daiteke.
- Administrazio publikoak kontratua egitea kooperatibarekin.
- Administrazio publikoak lankidetza hitzarmena egitea kooperatibarekin.

3.1 Administrazio publikoak zerbitzu publikoa emango duen kooperatiba mistoa sorraraztea

Zalantzarik gabe, azpimarratu behar dugu legeak espreski aurreikusten duela kooperatiba misto baten esku uztea zerbitzu publikoaren zeharkako kudeaketa.

38 6/1990 Lege Forala, uztailak 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, 3.1 c) art: “La Comunidad de Bardenas Reales de Navarra, la Comunidad del Valle de Aezkoa, la Mancomunidad del Valle de Roncal, la Universidad del Valle de Salazar, la Unión de Aralar y el resto de corporaciones de carácter tradicional titulares o administradoras de bienes comunales existentes a la entrada en vigor de esta ley foral”.

39 Tokiko entitate mota desberdin hauek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990, uztailak 2ko Legean aipatzen dira, Lehen Tituluko Bigarren Kapituluan.

Legeak, zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketaren esparruan, bi aukera desberdin gisa planteatzen ditu beherago ikusiko dugun zerbitzu publikoen emakida, eta kooperatiba mistoak zerbitzu publikoa kudeatzea⁴⁰.

Kooperatiba mistoaren kasuan, formula da tokiko administrazioak espreski sorrarazten duela zerbitzu publikoa zeharka kudeatuko duen kooperatiba hori.

Beherago garatuko dugun moduan, kooperatiba mistoan administrazio publikoak bazkide kapitalista gisa funtzionatzen du, kapital ekarpena eginez. Kooperatiba misto batek zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa egin ahal izateko, legezko baldintza batzuk daude, besteak beste: zerbitzu publiko horrek ezin du suposatu autoritatearen egikaritza⁴¹; eta kooperatiba mistoari entitate lokalak egindako kapital ekarpena, gutxienez, kapital sozialaren herena izango da⁴².

3.2 Administrazio publikoa kooperatibako bazkide izatea

Nafarroako Kooperatiba Legeak dio kooperatibako bazkide izan daitezkeela pertsona fisikoak eta baita ere pertsona juridikoak. Espreski pertsona juridiko-publikoak ez aipatu arren, inolako zalantzarik gabe ulertu behar dugu legea pertsona juridikoetaz ari denean, atea zabaltzen ari zaiela pertsona juridiko pribatu nahiz publikoei⁴³.

40 6/1990 Lege Forala, uztailak 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, 192.3 art: “La gestión indirecta comprenderá las siguientes formas: a) Concesión... e) Sociedad mercantil o cooperativa, cuyo capital social solo parcialmente pertenezca a la entidad local”.

41 6/1990 Lege Forala, uztailak 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, 193.1 art: “Los servicios públicos que impliquen ejercicio de autoridad serán atendidos necesariamente por gestión directa por la propia entidad local o a través de un organismo autónomo local”.

42 6/1990 Lege Forala, uztailak 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, 198.1 art: “En los casos de gestión indirecta mediante Sociedad mercantil con responsabilidad limitada, o Cooperativa, la aportación de la Entidad local podrá ser mayoritaria o minoritaria sin que en ningún caso sea inferior al tercio del capital social, y podrá consistir en la concesión u otra clase de bienes o derechos que tengan la consideración de patrimoniales y numerario. El capital social será desembolsado completamente en el momento de la constitución o de la ampliación de capital”.

43 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 20. art: “Pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan daitezke lehen mailako kooperatibetako bazkide. Inolaz ere ezin izanen da lehen mailako kooperatibarik eratu pertsona juridikoekin bakarrik”.

Hortik abiatuta, gaian sakondu beharra dago ikusteko nafar administrazio publikoek lankidetza publiko komunitarioa garatuko duen kooperatiba batean mota desberdineko bazkide estatusa har dezaketela: bazkide kooperatzailea; bazkide laguntzailea; ala bazkide kapitalista.

Bazkide kooperatzailea kooperatibako ohiko bazkidea da. Aktibitate kooperatiboan zuzenean parte hartzen duen pertsona da, pribatu ala publikoa izanda ere.

Nafar administrazio publikoak teknikoki izan daitezke, beraz, kooperatiba bateko bazkide kooperatibista arruntak, baina txosten honetan aztertzen ari garen esparruan, kooperatiben eta administrazio publikoen arteko lankidetza, ez dirudi baliagarria denik aukera hau. Izan ere, lankidetza esparru horretan administrazio publikoak zuzenean parte hartzea aktibitate kooperatiboan ez dirudi egingarria. Normalena dirudi kooperatibako langile-bazkideek egitea aktibitate kooperatiboa eta ez, zuzenean, administrazioak bere langile publikoen bitartez.

Salbuespena izan liteke, kontsumo kooperatiben kasuan, administrazio publikoa bazkide erabiltzaile izatea, orduan bai, kooperatibako bazkide kooperatzaile gisa.

Bigarren aukera litzateke administrazio publikoa kooperatibako bazkide laguntzaile izatea. Bazkide horiei laguntzaile deitzen zaie ez dutelako zuzenean egiten aktibitate kooperatiboa, baina lagundu egiten dute, kooperatibari laguntzen diote, bere helburuak bete ditzan⁴⁴.

Kooperatibaren aktibitatean laguntzaile izaerak nolabait bigarren maila batean egotea suposatzen duenez, kooperatiba barruko aginteari dagokionez legeak muga bat ezartzen du, kooperatibaren kontrola bazkide kooperatzaile arruntek edukitze aldera. Bazkide laguntzaileek gehienez botoen bostena edukiko dute, Batzar Orokorrean eta baita ere Artezkaritza Kontseiluan⁴⁵.

Bazkide laguntzailearen figura hau oso aproposa izan daiteke lankidetza publiko komunitarioa gauzatzeko. Legeak espreski dio administrazio publikoak bazkide laguntzaile izan daitezkeela, bidea

44 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 30.2 art: “Kooperatibaren sozietate helburua osotara gauzatu ez baina hura lortzen laguntzen ahal duten pertsona fisikoek ere bazkide laguntzailearen izaera eskuratu ahal dute”.

45 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 30.3 b) art: “Batzar orokorrean nola Zuzendaritza Kontseiluan dituzten boto guztien kopurua ez da izan sozietateak organo bakoitzean dituen botoen bostena baino altuagoa”.

erakutsiz⁴⁶. Adibidez, udal batek eraikin baten erabilera utzi dezake kooperatibaren esku, kooperatibak interes publikoko zerbitzua eman dezan.

Administrazio publiko nafar batek eduki dezakeen hirugarren bazkidetza mota nafar kooperatiba batean, bazkide kapitalistarena da. Kooperatiba mistoetan gerta daiteke hori.

Kooperatiba mistoek izen hori jasotzen dute, izaera kooperatibo-kapitalista mistoa dutelako. Beste modu batera esanda, kooperatibak dira, baina partzialki logika kapitalista barneratzen dute.

Izan ere, bazkide kapitalista deitzen ditugun horiek ohiko enpresa kapitalista bateko akziodun gisa jokatzeko dute. Beren ekarpena kooperatibari ez da aktibitate kooperatiboa, ohiko bazkide kooperatzaileek egiten duten moduan; beren ekarpena kapital ekarpena da⁴⁷.

Logika kapitalista horrek eragiten du, bazkide kapitalistei dagokienez, beren boto eskubidea ez dela sortzen bazkide izaeratik, aktibitate kooperatiboa egiteagatik, pertsona bat boto bat printzipio kooperatibo klasikoaren arabera, baizik eta kapital ekarpenagatik. Hainbateko kapital kopuruaren ekarpena, halako boto kopurua.

Kooperatiben izaera pertsonalistaren kontra doanez agintea banatzeko sistema kapitalista hori, legeak bazkide kapitalisten aginte maila mugatzen du. Gehienez, botoen %49a edukiko dute. Modu honetan, legeak bermatu nahi du kooperatibaren kontrola bazkide kooperatzaileen esku egotea⁴⁸.

Bazkide kapitalistaren figura baliagarria izan daiteke, kooperatibaren baitan lankidetzako publiko komunitarioa gauzatzeko. Administrazio publikoak kapitala jartzen du, interes publikoko zerbitzua emango duen kooperatiba ekonomikoki bultzatuz.

Beste aukera bat da nafar administrazio publiko bat kooperatiba integral bateko bazkide izatea. Kooperatiba integraletan izaera

46 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 30.1 art: “Bazkide laguntzaileak izanen dira... era berean, halakoak izanen dira... entitate publikoak”.

47 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 79.1 art: “Kooperatiba mistotzat hartuko dira bazkide gutxiengo batek jarritako kapitalaren arabera batzar orokorreko boto eskubidea izatea onartzen dutenak”.

48 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 79.2 art: “Batzar orokor horietako boto eskubidea honela banatuko da: a) Botoen 100eko 51 gutxienez kooperatibako bazkideei esleituko zaie... b) Botoen 100eko 49, gehienez, boto eskubidea atxikia duten zati sozialen titularrak diren bazkideen artean banatuko da”.

desberdinetako bazkideak elkartzen dira⁴⁹. Normalena, langile-bazkideak, alde batetik, eta bazkide erabiltzaileak, bestetik.

Nafarroako kooperatiba integraletan administrazio publikoek parte har dezakete, bazkide gisa, ikusi ditugun hiru era desberdinetan: bazkide kooperatzaile; bazkide laguntzaile; ala bazkide kapitalista.

Administrazio publikoek baita ere parte har dezakete bigarren mailako, edo maila handiagoko kooperatibetan. Kooperatiba konplexu hauek sortzen dira kooperatiba desberdinak elkartzen direnean. Lehen mailako kooperatibetaz gain, kooperatibak ez diren pertsona fisiko nahiz juridikoak izan daitezke bigarren edo maila handiagoko kooperatibetako bazkide. Pertsona juridikoen artean, legeak espreski aurreikusten ditu pertsona juridiko publikoak, modu horretan ate hori irekiz nafar administrazio publikoei⁵⁰.

Kooperatiba hauetan kooperatibak eta kooperatiba ez direnak elkartu daitezkeenez, legeak lehentasuna eman nahi die kooperatibei, eta horregatik ezartzen du muga gisa kooperatiba ez diren pertsonen gehienez botoen %40a edukiko dutela Batzar Orokorrean⁵¹.

Beraz, nafar administrazio publikoek parte har dezakete, bazkide gisa, bigarren edo maila handiagoko kooperatibetan, baina ezingo dute

49 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 80 art: “Kooperatiba integralak dira sozietate bakar batean kooperatiba mota guztietako helburuak biltzen dituztenak. Horrez gainera, bazkide mota bakoitzak batzar orokorreko botoen 100eko 10 izan beharko du, gutxienez. Halakotzat hartuko dira, orobat, lan elkartuko kooperatibak, botoen 100eko 49, gehienez, bertako bazkide erabiltzaileen esku baldin badago. Kooperatiba integraletako bazkide mota bakoitzak atal gisa jardun ahalko du. Kooperatiba integraletako sozietate organoetan kooperatiban dauden bazkide mota guztien ordezkariak egon beharko dira”.

50 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 81.1 art: “Mota bereko edo desberdineko bi kooperatiba edo gehiago elkartu ahalko dira beren borondatez, eta horren ondorioz bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibak sortu. Kooperatiba horretako bazkide izan ahalko dira, sozietate kooperatiboez gainera, lan-bazkideak eta, orobat, edozein entitate eta pertsona juridiko, publiko nahiz pribatu, baldin eta antzeko interes edo beharrak badituzte”.

51 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 81.1 art: “Sozietate kooperatibo ez diren bazkideen botoak bigarren mailako edo maila handiagoko sozietate kooperatiboan guztira dauden botoen 100eko 40 izanen dira gehienez, baina estatutuetan ehuneko baxuago bat ezar daiteke”.

kooperatibaren kontrola eduki. Logikoa, kooperatibak bere nortasun kooperatiboa mantendu ahal izateko.

Ikusitako aukerak alde batera utziz, lankidetza publiko komunitarioa baita ere gauza daiteke administrazio publikoa kooperatibako bazkide izan gabe. Nafar kooperatiben legeak aurreikusten du botere publikoek aitorpen berezi bat egitea kooperatibei, gizarte ekimeneko kooperatiba gisa kalifikatuz.

Kalifikazio administratibo horrek estatuz berezia ematen dio gizarte ekimeneko kooperatibari, eta horrek hainbat onura ekar ditzake arlo fiskalean, dirulaguntzetan, etab.

Gizarte ekimeneko kooperatibak irabazi asmorik gabekoak dira, eta estatus berezi hori lortzeko baldintza jakin batzuk bete behar dituzte. Jorratzen duten aktibitateari dagokionez, laguntza arloko gizarte zerbitzuak eman behar dituzte, edo, oro har, merkatuak asetzen ez dituen gizarte beharrianak⁵². Gainera, betekizun ekonomikoak dituzte, besteak beste, mozkinak bazkideen artean ez banatzea⁵³.

Gizarte ekimeneko kooperatiben kasuan, lankidetza publiko komunitarioa gauzatu daiteke administrazio publikoak kalifikazio hori

52 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 78.1 art: “Gizarte ekimeneko kooperatibatzat hartuko dira, edozein motatakoak izanda ere, sozietatearen helburua ondoko hauetako bat duten irabazi asmorik gabeko kooperatibak: a) Haurren eta gazteen babesarekin zerikusia duten laguntza arloko gizarte zerbitzuak ematea, zaharrei laguntza ematea, hezkuntza berezia, minusbalotasuna duten pertsonen laguntza ematea, gutxiengo etnikoei, errefuxiatuei, babestu politikoei, partekatu gabeko familia zamak dituzten pertsonen, preso ohiei, alkoholikoei eta toxikomanoei laguntza ematea eta haiek gizarteratzea. b) Edozein motatako gizarte bazterkeria jasaten duten pertsonen laneratzea helburu duten jarduera ekonomikoak garatzea eta, oro har, merkatuak asetzen ez dituen gizarte beharrei erantzutea”.

53 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 78.2 art: “a) Irabaziak ezin izanen dira bazkideen artean banatu. b) Bazkideek sozietatearen kapitalari eginiko ekarpenek, bai nahitaezkoek bai borondatezkoek, ezin sorrarazi izatea diruaren legezko korritua baino korritu handiagorik; hori, halere, ez da oztopo izan ekarpen horiek gaurkatzeko. c) Zuzendaritza Kontseiluko karguak ordainsaririk jaso gabe betetzea; hori, halere, ez da oztopo izan Kontseiluko kideen lanak sortutako gastuengatik bidezkoak diren ordain ekonomikoak jasotzeko. d) Bazkide langileen edo, kasua bada, lan-bazkideen eta besteren konturako langileen ordainsariak ez izatea altuagoak sektore horretako besteren konturako langileei aplikatzekoa zaien lan hitzarmenean, bakoitzak lortutako maila profesionalaren eta jardueraren arabera, ezarritako ordainsarien 100eko 150 baino”.

eginez, baina kooperatiban bazkide gisa parte hartu gabe; ala bazkide gisa kooperatiban parte hartuz, gainera legeak espreski aukera hori aurreikusten du⁵⁴.

3.3 Administrazio publikoak kontratua egitea kooperatibarekin

Kontratu mota edozein dela ere, azpimarratu behar da Nafarroako kontratu publikoen legeak, Estatuko 9/2017 sektore publikoko kontratuen legearen irizpide berbera jarraituz, espreski azpimarratzen duela administrazio publikoek gizarte ekonomiako enpresekin kontratazioa erraztuko dutela, irizpide sozialak eta ingurugirokoak aintzat hartzearekin batera⁵⁵.

Nafarroako kontratuen legea gizarte ekonomiaz ari denean, zalantzarik gabe, kooperatibetan pentsatzen ari da, kooperatibak baitira gizarte ekonomiaren sektoreko osagai nagusiak eta itzal luzeena dutenak. Hain zuzen ere, gizarte ekonomiako legeak⁵⁶ jasotzen dituen gizarte

54 14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa, 78.3 art: “Entitate eta erakunde publikoek bazkide gisa parte hartu ahalko dute estatutuei jarraikiz ezartzen den moduan”.

55 2/2018 Foru Legea, apirilak 13koa, kontratu publikoei buruzkoa, 2.3 art: “Kontratazio publiko orotan, nahitaez txertatuko dira, zeharkakotasunez, gizarte- eta ingurumen-irizpideak, baldin eta, betiere, kontratuaren xedearekin zerikusirik badute, uste osoz jotzen baita irizpide horien txertaketak kalitate-prezio erlazio hobe bat ezartzen duela kontratuko prestazioan, bai eta funts publikoen erabileraren efizientzia handiago eta hobe ere. Halaber, kontratazio publikorako irispidea erraztuko zaie enpresa txiki eta ertainei, bai eta ekonomia sozialeko enpresei ere”.

56 Ley 5/2011, de 29 de marzo, de economía social, 4. art: “Las entidades de la economía social actúan en base a los siguientes principios orientadores: a) Primacía de las personas y del fin social sobre el capital, que se concreta en gestión autónoma y transparente, democrática y participativa, que lleva a priorizar la toma de decisiones más en función de las personas y sus aportaciones de trabajo y servicios prestados a la entidad o en función del fin social, que en relación a sus aportaciones al capital social. b) Aplicación de los resultados obtenidos de la actividad económica principalmente en función del trabajo aportado y servicio o actividad realizada por las socias y socios o por sus miembros y, en su caso, al fin social objeto de la entidad. c) Promoción de la solidaridad interna y con la sociedad que favorezca el compromiso con el desarrollo local, la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres, la cohesión social, la inserción de personas en riesgo de exclusión social, la generación de empleo estable y de calidad, la conciliación de la vida personal, familiar y laboral y la sostenibilidad. d) Independencia respecto a los poderes públicos.

ekonomiako printzipioak, neurri handi batean, printzipio kooperatiboetan inspiratuta daude⁵⁷.

Gainera, lege berak dio zein baldintzetan egin diezaiokeen administrazio publikoak kooperatiba mistoari adjudikazio zuzena, nolabait tratamendu mesedegarri berezia emanaz kooperatiba mistoaren aukerari⁵⁸.

Atal honetan, bereziki aztertuko dugu zerbitzuen emakidaren kontratua. Dena den, Nafarroako kontratu publikoen legeak beste hainbat kontratu aurreikusten ditu: obra kontratua, obra emakida, hornikuntza, zerbitzuen kontratua, eta kontratu mistoa⁵⁹.

Administrazio publikoek enpresa desberdinekin egin ditzakete kontratu horiek, baita ere kooperatibekin.

57 Nazioarteko mugimendu kooperatiboan, 1995eko Manchesterreko Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren Kongresuan onarturiko printzipio kooperatiboak ondoko zazpiak dira: Atxikitze irekia eta borondatezkoa; kudeaketa demokratikoa; kideen partehartze ekonomikoa; autonomia eta independentzia; heziketa, formazioa, eta informazioa; interkooperazioa; komunitatearekiko interesa. <https://www.ica.coop/es/cooperativas/identidad-alianza-cooperativa-internacional#toc-principios-cooperativos>

58 6/1990 Lege Forala, uztailak 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, 6. art: “Contratos con Sociedades de Capital Mixto. 1. Los contratos públicos podrán adjudicarse directamente a una sociedad de capital mixto en la que concurra capital público y privado, siempre que la elección del socio privado se haya efectuado de conformidad con las normas establecidas en el título I de esta ley foral para la adjudicación del contrato cuya ejecución constituya su objeto y siempre que no se introduzcan modificaciones en el objeto y las condiciones del contrato que se tuvieron en cuenta en la selección del socio privado. 2. Los pliegos que regulen el procedimiento de selección del socio privado contendrán todos los elementos definitorios de la relación entre este y el poder adjudicador, así como los relativos a la relación contractual entre el poder adjudicador y la sociedad de capital mixto, y, en particular, el contrato público o la concesión que se ha de adjudicar a la sociedad, así como los estatutos de ésta y los pactos de accionista que, en su caso, deban suscribirse. Igualmente deberán expresarse con claridad y precisión las posibilidades de prórroga o modificación del contrato público o de la concesión adjudicada a la sociedad de capital mixto”.

59 2/2018 Foru Legea, apirilak 13koa, kontratu publikoei buruzkoa, 27.1 art: “Kontratu publikoen araubide juridikoa eta haiek obra, obra-emakida, zerbitzu-emakida, hornidura edo zerbitzu gisa kalifikatzea kapitulu honetan jasotako arauekin bat zehaztuko dira”. Zerrenda honetan agertzen ez den arren, lege berak 33. art.an kontratu mistoa jaso eta erregulatzen du.

Obra kontratuan edozein enpresak, kooperatiba barne, entitate publiko batekin kontratatzen du obra bat egiteko konpromisoa hartuz⁶⁰. Obra publikoen emakidaren kontratuan, berriz, enpresa obra publikoaren emakidaduna da, eta, modu egonkorrean, obraren ustiapenaren arduradun eta onuraduna da, eta horretaz gain prezioa egon daiteke⁶¹. Hornikuntza kontratuan administrazioak enpresa baten produktuak erosi edo alokatzen ditu⁶².

Zerbitzuen kontratuan administrazioak enpresa baten zerbitzua kontratatzen du, diruaren truke⁶³. Kontratu honen eta zerbitzuen emakida kontratuaren arteko desberdintasun nagusia da zerbitzu kontratuan aktibitate ekonomiko horren arriskua administrazioak hartzen duela bere gain; eta zerbitzu emakidaren kontratuan arriskua emakidadunak hartzen du, hots, kooperatibak.

Azkenik, kontratu mistoa ikusi berri ditugun mota desberdinetako kontratuen prestazioak jasotzen dituen da⁶⁴.

Gure aztergaia den lankidetzaren publiko komunitarioaren arloan, administrazio batek herri kooperatiba batekin kontratatzeke orduan, figura

60 2/2018 Foru Legea, apirilak 13koa, kontratu publikoei buruzkoa, 28 art: “1. Obra kontratua xede hau duena da: a) Foru lege honen I. eranskinean aipatzen diren jardueretako bati dagozkion obrak exekutatzeari, edo haien proiektua egin eta exekutatzeari, batera. b) Subjektu kontratugileak zehaztutako beharrei erantzuten dien obra bat egitea, edozein bitarteko erabiliz. 2. “Obra” gisa ulertuko da eraikuntza edo ingeniariartza zibileko lan multzo baten emaitza, zeregin gisa duena bere horretan funtzio ekonomiko edo tekniko bat betetzea”.

61 2/2018 Foru Legea, apirilak 13koa, kontratu publikoei buruzkoa, 31. art: “Herri-lanen emakidarako kontratua obra kontratuaren xede bera duena da, baina honela ordaintzen dena: obra ustiartzeko eskubidearekin soilik, edo eskubide hori gehi prezioa emanez, eta eragiketa-arriskua emakidadunari eskualdatuz”.

62 2/2018 Foru Legea, apirilak 13koa, kontratu publikoei buruzkoa, 29. art: “Hornidura-kontratua xede hau duena da: produktuak erostea, haien errentamendu finantzarioa, haien epekako errentamendu edo salmenta, erosteko aukerarekin nahiz gabe”.

63 2/2018 Foru Legea, apirilak 13koa, kontratu publikoei buruzkoa, 30.1 art: “Zerbitzu-kontratua da obra- edo hornidura-kontratuaren xedeaz bestelako bat daukana, eta horren bidez enpresa edo profesional bati enkargatzen zaio prezioen truke zerbitzu bat ematea; halaber, halakotzat hartuko dira adjudikazio-hartzaileak zerbitzua hurrenez hurren eta prezio unitarioan exekutatzeko betebeharra bere gain hartzen duenekoak”.

64 2/2018 Foru Legea, apirilak 13koa, kontratu publikoei buruzkoa, 33.1 art: “Kontratu mistotzat hartzen da beste mota bateko kontratu bati edo batzuei dagozkien prestazioak dituen”.

egokiena zerbitzu emakidaren kontratua dirudi. Kontratu publiko honen funtsa da enpresa emakidadunak zerbitzua ematen duela ordainaren truke, aktibitatearen arriskua bere gain hartuz. Ordaina izango da zerbitzuaren ustiapena, zerbitzuaren erabiltzaileengandik dirua jasoz, eta horri gehitu dakioke administrazio kontratugileak ordaindutako prezioa⁶⁵.

Izan ere, kontratu honen bitartez administrazio publikoak enpresa kooperatibo emakidadun baten esku utzi dezake zerbitzu publiko bat ematea. Eta, gainera, aldi berean, administrazioa kooperatiba horretako bazkide izan daiteke, gorago ikusi dugun moduan, bazkide laguntzaile, edo bazkide kapitalista gisa.

Zalantzarik gabe, udal batek bere eskumenekoa den zerbitzu publiko bat ematea kooperatiba baten esku utzi dezake, zerbitzuen emakidaren kontratuaren bitartez.

Udal bakoitzak aukeratu dezake, legeak utzitako esparruetan betiere, ea bere eskumenekoa den zerbitzu publiko bat zuzenean emango duen, ala zeharka⁶⁶, eta zeharka kudeatzeko aukera bat, hain zuzen ere, emakida da, kooperatiba emakidadun izanik⁶⁷.

3.4 Administrazio publikoak lankidetza hitzarmena egitea kooperatibarekin

Gorago esan dugun moduan, lankidetza hitzarmena ez da kontratu bat⁶⁸. Helburu komun baten alde elkarlanean aritzeko egiten diren negozio juridikoak dira. Lankidetza hitzarmenak erakunde publikoen artean egin

65 2/2018 Foru Legea, apirilak 13koa, kontratu publikoei buruzkoa, 32. art: “Zerbitzu-emakidarako kontratuaren kasuan, xedea da zerbitzu bat ematea, honela ordainduz: zerbitzua ustiatzeko eskubidearekin soilik, edo eskubide hori gehi prezioa emanez, eta eragiketa-arriskua emakidadunari eskualdatuz”.

66 6/1990 Lege Forala, uztailak 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, 192.1 art: “Los servicios públicos locales pueden gestionarse en forma directa o indirecta”.

67 6/1990 Lege Forala, uztailak 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, 192.3 art: “La gestión indirecta comprenderá las siguientes formas: a) Concesión...”.

68 Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, 47.1 art: “Los convenios no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en la legislación de contratos del sector público”.

daitezke, ala erakunde publiko batek erakunde pribatu batekin⁶⁹. Guri, txosten honetan, interesatzen zaigun aukera, bigarrena da⁷⁰.

Nafarroako kontratu publikoen legeak argi uzten du lankidetzaren hitzarmena ez dela kontratu bat, berak arautzen duen kontratuen esparrutik kanpo kokatzen dituen lankidetzaren hitzarmenak⁷¹.

Dena den, lankidetzaren hitzarmenaren bitartez kooperatiba batek zerbitzu publiko bat eman dezake. Nafarroako Foru Erkidegoan, formula hori hezkuntzaren sektorean erabiltzea espreski aurreikusten da. Dekretu autonomiko batek arautzen ditu hezkuntza arloko itun horiek⁷².

Itunak egiteko baldintza gisa, hezkuntza zentroak gizarte ekimenekoak izan behar dira. Horren arabera, irekita dago aukera gizarte ekimenekoak diren hezkuntza kooperatibentzat⁷³. Kooperatiba horiek hezkuntzaren zerbitzu publikoa ematen dute, administrazio publikoarekin egiten duten hezkuntza itunaren bitartez. Itun horren arabera, hezkuntza kooperatibek diru publikoa jaso dezakete.

69 Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, 47.1 art: “Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común”.

70 Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, 47.2 c) art: “c) Convenios firmados entre una Administración Pública u organismo o entidad de derecho público y un sujeto de Derecho privado”.

71 2/2018 Foru Legea, apirilak 13koa, kontratu publikoei buruzkoa, 7.1 h) art: “Adjudikazio botere publikoek beraien artean edo beste administrazio, erakunde eta entitate publiko batzuekin egindako lankidetzaren hitzarmenak, bai eta Foru Komunitateko Administrazioak zuzenbide pribatuaren mendeko pertsona fisiko edo juridikoekin egindako lankidetzaren hitzarmenak ere, horien gaineko arau berariazkoek jarraikiz, betiere horien xedea eta kausa sartuta ez badaude foru lege honek edo arau administratibo bereziek araututako kontratuetan”.

72 416/1992 Foru Dekretua, abenduak 14koa, Hezkuntza Itune buruzko Erreglamendua.

73 Kooperatibei aipamena aurkitu daiteke, 416/1992 Foru Dekretuan, abenduak 14koa, Hezkuntza Itune buruzko Erreglamendua, 22. art: “Los centros que funcionen en régimen de cooperativa no podrán contener en sus estatutos cláusulas que impidan el cumplimiento de las obligaciones que para los centros concertados se deriven de la Ley Orgánica 8/1985, reguladora del Derecho a la Educación”.

4 Hego Euskal Herrian Euskal Autonomi Erdidegoa eta Nafarroa garaia-aren arteko mugaz gaindiko herri kooperatibaren bideragarritasuna

Atal honetan aztertuko dugu Hego Euskal Herria juridiko-formalki banatzen duten Nafarroako Foru Erkidegoa (NFK) eta Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) arteko mugaz gaindiko herri kooperatibaren aukera.

Lehenik eta behin baieztatu dezakegu erkidego autonomoen arteko muga gainditzeko duen kooperatiba egin, egin daitekeela, espainiar Estatu mailako kooperatiba legea aplikatuz, betiere, eta aktibitate nagusia erkidego bakar batean ez bada egiten⁷⁴.

Arlo publikora etorruta, komunitate autonomoen arteko mugaz gaindiko kooperatiben solaskide gisa, edozein udal aritu daiteke, EAEkoa edo NFK-koa. Baina, horretaz gain, udalerria gainditzeko duen subjektu publikoa egon daiteke: mankomunitatea eta partzuergoa.

Mankomunitateei dagokienez, udalerrien artean sortzen diren tokiko entitateak dira, interes komuneko zerbitzu publiko lokalak emateko. Legediak argi uzten du NFK eta EAEn dauden udalerri desberdinen artean mankomunitateak sor daitezkeela. Estatuko Legediak aukera irekitzen du⁷⁵. Hego Euskal Herriko esparruan, aukera hori berresten dute bai NFK-ko legeak⁷⁶, eta baita ere EAEkoak⁷⁷.

74 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 2. art: “La presente Ley será de aplicación: a) A las sociedades cooperativas que desarrollen su actividad cooperativizada en el territorio de varias Comunidades Autónomas, excepto cuando en una de ellas se desarrolle con carácter principal”.

75 7/1985, apirilaren 2ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 44.5 art: “Podrán integrarse en la misma mancomunidad municipios pertenecientes a distintas comunidades autónomas, siempre que lo permitan las normativas de las comunidades autónomas afectadas”.

76 6/1990 Lege Forala, uztailak 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, 47.1 art: “Los Municipios de Navarra pueden asociarse entre sí o con Municipios pertenecientes a otras Comunidades Autónomas, para la ejecución en común de obras y para la prestación de servicios determinados de su competencia”.

77 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 103.9 art: “Autonomia Erkidegoko udalek, toki-araubidearen oinarriko legeriarekin bat, beste autonomia-erkidego batzuetakoak diren udalekin mankomunitateetan biltzeko aukera izango dute, lege honetan ezartzen den moduan eta, era berean, gai honi buruz beste autonomia-erkidegoko edo -erkidegoetako legerian erabakitakoarekin bat etorruta”. Udal-elkarteak dioenean mankomunitateaz ari da.

Partzuergoak ere interes komuneko zerbitzu publikoak emateko sortzen diren erakundeak dira⁷⁸. Bertako kide, administrazio publikoetaz gain, subjektu pribatuak izan daitezke ere. Legez argi dago erkidego autonomo desberdinetako administrazio publikoek sor ditzaketela. Estatuko legeak bidea irekitzen du, estatuen arteko partzuergoaren aukera aipatzen duenean⁷⁹. EAEko legeak aukera berresten du⁸⁰, eta NFK-koak ez du espreski aipatzen, baina ez du eragozpenik jartzen, eta gainera estatuen arteko partzuergoaren aukera aipatzen du⁸¹.

Euskal Herri barruan ditugun muga juridiko-politikoak gainditzeko borondate politiko txalogarria erakusten du EAEko Toki Erakundeei buruzko legeak, Euskal Herriko lurralde desberdinen arteko lankidetzaz sustatzen duenean, zazpi herrialdeak aintzat hartuz⁸².

Zalantzarik gabe, Euskal Herri osoko izaera nazionala eta partzuergoaren forma juridikoa duen Udalbiltza erakundea aipatu behar da

78 Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, 118. art: “1. Los consorcios son entidades de derecho público, con personalidad jurídica propia y diferenciada, creadas por varias Administraciones Públicas o entidades integrantes del sector público institucional, entre sí o con participación de entidades privadas, para el desarrollo de actividades de interés común a todas ellas dentro del ámbito de sus competencias. 2. Los consorcios podrán realizar actividades de fomento, prestacionales o de gestión común de servicios públicos y cuantas otras estén previstas en las leyes”.

79 Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, 118.3 art: “Los consorcios podrán utilizarse para la gestión de los servicios públicos, en el marco de los convenios de cooperación transfronteriza en que participen las Administraciones españolas, y de acuerdo con las previsiones de los convenios internacionales ratificados por España en la materia”.

80 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 106.7 art: “Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak elkartu ahal izango dira partzuergoetan Erkidego honetakoak edo beste lurralde batzuetakoak diren toki-erakundeei edo administrazio publikoekin”.

81 6/1990 Lege Forala, uztailak 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, 212.5 art: “En los casos de consorcios de carácter internacional, se estará a lo dispuesto en la legislación estatal en la materia”.

82 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 107.1 art: “Autonomia Erkidegoko instituzio komunek eta lurralde historikoetako foru-organismoek, zeinek bere eskumenen eremuan, eta mugaz gaindiko lankidetzako programa bai propio bai komun baten esparruan, sustatuko dute hizkuntza, kultura, ekonomia eta gizarte izaerako lokarriak ezartzea eta indartzea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eta Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoako toki-erakundeen artean, betiere lankidetzaz horrek toki-eskumeneko politikak eta zerbitzuen kudeaketa hobetzea badakar. Era berean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako toki-erakundeen lankidetzaz hitzarmenak adostu ahal izango dituzte Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoako toki-erakundeen, hizkuntza, kultura, ekonomia, gizarte eta lankidetzazko lokarri komunak ezartze eta indartze aldera”.

hemen. Beherago, bueltatuko gara Udalbiltzara, Euskal Herri osoko kooperatibaren aukera landuko dugun atalean.

Behin argituta NFK eta EAEko erkidego autonomoen muga gainditzen duten kooperatibak sor daitezkeela, badakigu ere harremanetan egon daitekeela kooperatiba horiekin mugaz bi aldeetako edozein udal eta, baita ere, subjektu publikoen aldetik, mankomunitate nahiz partzuergoak.

Orain ikus ditzagun zeintzuk diren kooperatiben eta entitate publiko horien arteko mugazgaindiko lankidetza publiko komunitarioko bide juridiko nagusiak. Ondokoak nabarmendu ditzakegu:

- Administrazio publikoa kooperatibako bazkide izatea.
- Administrazio publikoak kontratua egitea kooperatibarekin.
- Administrazio publikoak lankidetza hitzarmena egitea kooperatibarekin.

4.1 Administrazio publikoa kooperatibako bazkide izatea

Lankidetza publiko komunitarioa gauza daiteke administrazio publikoa kooperatibako bazkide izanik.

Kooperatiba Legeak aukera zabaltzen du administrazio publikoak kooperatibetako bazkide izateko, pertsona juridiko publikoak aipatzen dituenen⁸³. Beraz EAEko nahiz nafarroako udal bat, ala bi lurraldeetan eragiten duen mankomunitate ala partzuergo bat, muga autonomikoa gainditzen duen kooperatiba bateko bazkide izan daitezke.

Hotik aurrera, hiru bazkidetza mota nagusi desberdindu ditzakegu: bazkide kooperatzaile, bazkide laguntzaile, edo bazkide kapitalista.

Lehen aukera izango litzateke administrazio publikoa kooperatibako bazkide arrunta izatea. Bazkide kooperatzailearen izaeraren gakoa da aktibitate kooperatiboan parte hartzen duela.

Zaila da lankidetza publiko komunitario hori gauzatzea udala kooperatibako bazkide kooperatzaile arrunta bihurtuz. Administrazioak

83 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 12. 1 art: “En las cooperativas pueden ser socios, en función de la actividad cooperativizada, tanto las personas físicas como jurídicas, públicas o privadas y las comunidades de bienes”.

zuzenean, bere langile publikoen bitartez, parte hartzea zuzenean aktibitate kooperatiboan? Ez dirudi egingarria.

Dena den, zentzuduna izan daiteke udal bat kontsumo kooperatiba bateko bazkide kooperatzaile izatea, bazkide kontsumitzaile arrunt gisa. Edo herri kooperatiba integral batean, lana eta kontsumoa kooperatibizatu dituen, udala bazkide kontsumitzaile izatea.

Bigarren aukera bazkide laguntzailearena da. Laguntzaile deitzen zaio ez duelako zuzenean parte hartzen aktibitate kooperatiboan, baina laguntzen du kooperatibaren helburua lortzen⁸⁴.

Bazkide laguntzaileek, nolabait kooperatiban bigarren mailako protagonismoa izanik, muga garrantzitsuak dituzte. Alde batetik, beren kapital ekarpenak gehienez ekarpen guztien %45ekoak izango dira. Bestalde, beren botoak kooperatibako boto guztien %30a ezingo dute gainditu⁸⁵.

Figura hau oso erabilgarria izan daiteke herri kooperatibetan, udalak, aktibitate kooperatiboa zuzenean egin gabe, kooperatibaren laguntzaile gisa jarduten duenean, kooperatibak eta udalak partekatzen duten helburu publiko komunitarioa lortze aldera.

Besteak beste, pentsa genezake eraikin publikoen erabilera uztearen ekarpena egiten duen udal batean, bazkide laguntzaile gisa, eraikin horretan bazkide kooperatibistek aktibitate kooperatiboa egin dezaten.

Hirugarren aukera da administrazio publikoa bazkide kapitalista izatea, kooperatiba mistoetan⁸⁶.

84 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 14. art: “Los Estatutos podrán prever la existencia de socios colaboradores en la cooperativa, personas físicas o jurídicas, que, sin poder desarrollar o participar en la actividad cooperativizada propia del objeto social de la cooperativa, pueden contribuir a su consecución”.

85 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 14. art: “Las aportaciones realizadas por los socios colaboradores en ningún caso podrán exceder del cuarenta y cinco por ciento del total de las aportaciones al capital social, ni el conjunto de los votos a ellos correspondiente, sumados entre sí, podrán superar el treinta por ciento de los votos en los órganos sociales de la cooperativa”.

86 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 107.1 art: “Son cooperativas mixtas aquéllas en las que existen socios cuyo derecho de

Kooperatiba mistoek izen hori dute nolabait kooperatiben izaera desnaturalizatzen duen formula kooperatibo-kapitalista direlako.

Sozietate batek izaera pertsonalista ala kapitalista izatean dago gakoa. Kooperatibak sozietate pertsonalistak dira, eta sozietatea bera pertsonen ardatzaren inguruan eraikitzen da. Horregatik, botoak ez dira banatzen kooperatibista bakoitzak egin duen kapital ekarpenaren kopuruaren arabera. Printzipio kooperatibo klasikoari jarraiki, pertsona bat, boto bat⁸⁷.

Aitzitik, sozietate kapitalistak kapitalaren ardatzaren inguruan eraikitzen dira, eta kapitalak baldintzatzen du botoa; hainbat kapital, halako boto kopurua⁸⁸.

Kooperatiba mistoetan, bazkide kapitalistek ez dute aktibitate kooperatiborik egiten. Kooperatibari egiten dioten ekarpena, hain zuzen ere, kapital ekarpena da. Eta kapitalaren arabera izango da beren boto eskubidea.

Beraz, bazkide kapitalistaren aukera honetan, administrazioak herri kooperatibari egiten dion ekarpena kapital kopuru bat izango litzateke, modu horretan kooperatibak beteko duen funtzio publiko-komunitarioari ekonomikoki lagunduz.

Dena den, kooperatiba legediak nahi du bazkide kooperatibistek mantentzea kontrola, eta horregatik, bazkide kapitalisten boto kopurua mugatua dago, gehienez %49a⁸⁹.

voto en la Asamblea General se podrá determinar, de modo exclusivo o preferente, en función del capital aportado en las condiciones establecidas estatutariamente, que estará representado por medio de títulos o anotaciones en cuenta y que se denominarán partes sociales con voto, sometidos a la legislación reguladora del mercado de valores”.

87 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 26.1 art: “En la Asamblea General cada socio tendrá un voto”.

88 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 107.1 art: “Son cooperativas mixtas aquéllas en las que existen socios cuyo derecho de voto en la Asamblea General se podrá determinar, de modo exclusivo o preferente, en función del capital aportado”.

89 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 107.2 b) art: “Una cuota máxima, a determinar estatutariamente, del 49 por 100 de los votos se distribuirá entre uno o varios socios titulares de partes sociales con voto”.

Kooperatiba mistoetan, bazkide kooperatibistek kontrola manten dezaten, bazkide laguntzaile eta bazkide kapitalistek, batuta, gehienez botoen %49 eduki dezakete⁹⁰.

Beste aukera bat da administrazio publikoa bazkide izatea kooperatiba integral batean. Kooperatiba integrala, funtsean lana eta kontsumoa kooperatibizatzen dituen da, kooperatiba integral bakarraren baitan⁹¹.

Kooperatiba integraletan administrazio publikoak bazkide gisa parte hartzeko, gorago ikusitako hiru aukerak gerta daitezke: bazkide kooperatzailea; bazkide laguntzailea; edo bazkide kapitalista.

Bestalde, kooperatiben arteko interkooperazioaren printzipioa gauzatuz, bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibak sor daitezke. Bigarren mailako kooperatibetan, halabeharrez, bi kooperatiba egon behar dira. Hortik aurrera, legeak atea irekitzen dizkie bazkide-langileei, eta beste edozein pertsona juridikori, publiko nahiz pribatuak izan.

Beraz, bigarren maila edo maila handiagoko kooperatibetan administrazio publikoak egon daitezke, kooperatiba mota berezi hauetako bazkide gisa.

Gorago ikusi ditugun kasuetan administrazioa kooperatibako bazkidea zen. Kasu horietaz gain, komeni da azpimarratzea, kooperatiben aktibitatearen arabera, aukera dagoela administrazio publikoak aitorten berezi bat egiteko, estatus juridiko propioa emanez: gizarte ekimeneko

90 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 107.2 c) art: “En ningún caso la suma total de los votos asignados a las partes sociales con voto y a los socios colaboradores podrá superar el 49 por 100 del total de votos sociales de la cooperativa”.

91 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 105 art: “Se denominarán cooperativas integrales aquéllas que, con independencia de su clase, su actividad cooperativizada es doble o plural, cumpliendo las finalidades propias de diferentes clases de cooperativas en una misma sociedad, según acuerdo de sus Estatutos y con observancia de lo regulado para cada una de dichas actividades. En dichos casos, su objeto social será plural y se beneficiará del tratamiento legal que le corresponda por el cumplimiento de dichos fines”.

kooperatibak. Gainera, kooperatiba hauetan, administrazio publikoa kooperatibako bazkide izan daiteke, gorago ikusi dugun moduan⁹².

Gizarte ekimeneko kooperatibak irabazi asmorik gabekoak dira, eta izaera sozialeko beharrezanez erantzuten diete: hezkuntza, osasuna, kultura, besteak beste. Baita ere merezi dute aitorpen hori gizarte bazterketa egoeran daudenak laneratzen saiatzen direnak eta, oro har, merkatuak asetzen ez dituen gizarte beharrezanez erantzuten dietenak⁹³.

Aipaturiko estatus berezi hori islatzen da, besteak beste, gizarte ekimeneko kooperatiben fiskalitatean.

Zalantzarik gabe, ikusi ditugun baldintzak betez gero, muga autonomikoz gaindiko herri kooperatibek gizarte ekimeneko kooperatiben aitorpena lor dezakete, aitorpen horiek dakarzkin onurak profitatuz.

4.2 Administrazio publikoak kontratua egitea kooperatibarekin

Administrazio publikoek kontratu mota desberdinak egin ditzakete EAE eta NFK-ren arteko muga gaindituz, Hego Euskal Herriko esparrua duten kooperatibekin.

Gorago esan dugun moduan, subjektu publikoa izan daiteke udal bat, NFK-koa ala EAEkoa, edo mugaz gaindiko mankomunitate nahiz partzuergo bat.

Administrazio publiko horiek kontratu administratibo mota desberdinak egin ditzakete, baita ere kooperatibekin: obra kontratua, obra emakida, hornikuntza, zerbitzuen kontratua, zerbitzuen emakidaren kontratua, eta kontratu mistoa.

92 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 106.2 art: “Las entidades y organismos públicos podrán participar en calidad de socios en la forma que estatutariamente se establezca”.

93 27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa, 106.1 art: “Serán calificadas como de iniciativa social aquellas cooperativas que, sin ánimo de lucro y con independencia de su clase, tienen por objeto social, bien la prestación de servicios asistenciales mediante la realización de actividades sanitarias, educativas, culturales u otras de naturaleza social, o bien el desarrollo de cualquier actividad económica que tenga por finalidad la integración laboral de personas que sufran cualquier clase de exclusión social y, en general, la satisfacción de necesidades sociales no atendidas por el mercado”.

Kontratu mota edozein dela ere, azpimarratu behar da kontratu publikoen legeak espreski azpimarratzen duela administrazio publikoek gizarte ekonomiako enprekin kontratatzea erraztuko dutela, irizpide sozialak eta ingurugirokoak aintzat hartzearekin batera⁹⁴.

Kontratuen legea gizarte ekonomiaz ari denean, zalantzarik gabe, bete-betean kooperatibetan pentsatzen ari da, horiek baitira gizarte ekonomiaren sektoreko osagai tradizional eta nagusiak. Izan ere, gizarte ekonomiako legeak⁹⁵ jasotzen dituen gizarte ekonomiako printzipioak, neurri handi batean, printzipio kooperatiboetan inspiratuta daude⁹⁶.

Kontratu publikoen legeak, berdintasuna hausteko irizpideen artean, ez ditu espreski kooperatibak aipatzen, baina bai irabazi asmorik gabeko enpresak⁹⁷. Gorago ikusi dugun moduan, kooperatibak sarritan irabazi

94 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 1.3 art: “En toda contratación pública se incorporarán de manera transversal y preceptiva criterios sociales y medioambientales siempre que guarde relación con el objeto del contrato, en la convicción de que su inclusión proporciona una mejor relación calidad-precio en la prestación contractual, así como una mayor y mejor eficiencia en la utilización de los fondos públicos. Igualmente se facilitará el acceso a la contratación pública de las pequeñas y medianas empresas, así como de las empresas de economía social”.

95 Ley 5/2011, de 29 de marzo, de economía social, 4. art: “Las entidades de la economía social actúan en base a los siguientes principios orientadores: a) Primacía de las personas y del fin social sobre el capital, que se concreta en gestión autónoma y transparente, democrática y participativa, que lleva a priorizar la toma de decisiones más en función de las personas y sus aportaciones de trabajo y servicios prestados a la entidad o en función del fin social, que en relación a sus aportaciones al capital social. b) Aplicación de los resultados obtenidos de la actividad económica principalmente en función del trabajo aportado y servicio o actividad realizada por las socias y socios o por sus miembros y, en su caso, al fin social objeto de la entidad. c) Promoción de la solidaridad interna y con la sociedad que favorezca el compromiso con el desarrollo local, la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres, la cohesión social, la inserción de personas en riesgo de exclusión social, la generación de empleo estable y de calidad, la conciliación de la vida personal, familiar y laboral y la sostenibilidad. d) Independencia respecto a los poderes públicos.

96 Nazioarteko mugimendu kooperatiboan, 1995eko Manchesterreko Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren Kongresuan onarturiko printzipio kooperatiboak ondoko zazpiak dira: Atxikitze irekia eta borondatezkoa; kudeaketa demokratikoa; kideen partehartze ekonomikoa; autonomia eta independentzia; heziketa, formazioa, eta informazioa; interkooperazioa; komunitatearekiko interesa.
<https://www.ica.coop/es/cooperativas/identidad-alianza-cooperativa-internacional/#toc-principios-cooperativos>

97 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 147.1 c) art: “En la adjudicación de los contratos relativos a prestaciones de carácter social o asistencial, las proposiciones presentadas por entidades sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica,

asmorik gabekoak dira, eta horregatik hain zuzen ere jasotzen dute estatus berezia aitortzen dien kalifikazioa gizarte ekimeneko kooperatiba gisa.

Kontratu mota desberdinei ekinez, obra kontratuaren objektua da enpresa batek, kooperatiba izan daitekeena, obra jakin bat egitea administrazioarentzat⁹⁸. Obra emakidaren kontratuan, aldiz, enpresa emakidaduna da, eta, modu egonkorrean, obraren esplotazioaren arduradun eta onuraduna litzateke⁹⁹. Hornikuntza kontratuan administrazioak kooperatiba baten produktuak alokatu edo erosten ditu¹⁰⁰.

Zerbitzuen kontratuan administrazioak kooperatibaren zerbitzua kontratatzen du, diruaren truke¹⁰¹. Kontratu honen eta zerbitzuen emakida kontratuaren arteko desberdintasun nagusia da zerbitzu kontratuan aktibitate ekonomiko horren arriskua administrazioak hartzen duela bere gain; eta zerbitzu emakidaren kontratuan arriskua emakidadunak hartzen du, hots, kooperatibak.

siempre que su finalidad o actividad tenga relación directa con el objeto del contrato, según resulte de sus respectivos estatutos o reglas fundacionales y figuren inscritas en el correspondiente registro oficial”.

98 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 13.1 art: “Son contratos de obras aquellos que tienen por objeto uno de los siguientes: a) La ejecución de una obra, aislada o conjuntamente con la redacción del proyecto, o la realización de alguno de los trabajos enumerados en el Anexo I. b) La realización, por cualquier medio, de una obra que cumpla los requisitos fijados por la entidad del sector público contratante que ejerza una influencia decisiva en el tipo o el proyecto de la obra”.

99 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 14.1 art: “La concesión de obras es un contrato que tiene por objeto la realización por el concesionario de algunas de las prestaciones a que se refiere el artículo anterior, incluidas las de restauración y reparación de construcciones existentes, así como la conservación y mantenimiento de los elementos construidos, y en el que la contraprestación a favor de aquel consiste, o bien únicamente en el derecho a explotar la obra en el sentido del apartado cuarto siguiente, o bien en dicho derecho acompañado del de percibir un precio”.

100 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 16.1 art: “Son contratos de suministro los que tienen por objeto la adquisición, el arrendamiento financiero, o el arrendamiento, con o sin opción de compra, de productos o bienes muebles”.

101 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 17 art: “Son contratos de servicios aquellos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o suministro, incluyendo aquellos en que el adjudicatario se obligue a ejecutar el servicio de forma sucesiva y por precio unitario”.

Kontratu mistoa ikusi berri ditugun mota desberdinetako kontratuen objektuak barneratzen dituen da¹⁰².

Zalantzarik gabe, uste dugu zerbitzu publikoaren emakida administratiboaren aukerak bete-betean asmatzen duela lankidetza publiko-komunitarioaren ibilgailu juridiko gisa.

Zerbitzuaren emakidaren kontratuan, administrazio publiko batek bere eskumenekoa duen zerbitzu publiko bat ematea enpresa baten esku uzten du, kooperatiba izan daitekeena. Emakidadunak zerbitzuaren ustiapena egingo du, zerbitzua erabiltzen dutenei prezioa kobratuz, eta irabazi horretaz gain administrazioak ordaintzen duen prezioa egon daiteke. Gorago aipatu dugun moduan, kooperatiba emakidadunak aktibitatearen arriskua bere gain hartzen du¹⁰³.

Gainera, zerbitzuen emakidaren kontratuaren testuinguruan, kontratua egiten duen administrazio publikoa kooperatiba emakidadunako bazkide izan daiteke, gorago ikusi dugun moduan, gehienbat bazkide laguntzaile ala bazkide kapitalista.

4.3 Administrazio publikoak lankidetza hitzarmena egitea kooperatibarekin

Lehenik eta behin komeni da argitzea lankidetza hitzarmena ez dela inoiz kontratu bat¹⁰⁴. Helburu komun baten alde elkarlanean aritzeko egiten da. Lankidetza hitzarmenak erakunde publikoen artean egin daitezke, ala

102 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 15. art: “1. El contrato de concesión de servicios es aquel en cuya virtud uno o varios poderes adjudicadores encomiendan a título oneroso a una o varias personas, naturales o jurídicas, la gestión de un servicio cuya prestación sea de su titularidad o competencia, y cuya contrapartida venga constituida bien por el derecho a explotar los servicios objeto del contrato o bien por dicho derecho acompañado del de percibir un precio. 2. El derecho de explotación de los servicios implicará la transferencia al concesionario del riesgo operacional, en los términos señalados en el apartado cuarto del artículo anterior”.

103 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 18.1 art: “Se entenderá por contrato mixto aquel que contenga prestaciones correspondientes a otro u otros de distinta clase”.

104 Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, 47.1 art: “Los convenios no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en la legislación de contratos del sector público”.

erakunde publiko batek erakunde pribatu batekin¹⁰⁵. Guri interesatzen zaigun aukera, betiere lankidetza publiko-komunitarioaren ikuspegitik, bigarrena da¹⁰⁶.

Gorago landu dugun kontratu publikoen legeak argi uzten du lankidetza hitzarmena ez dela kontratu bat, berak arautzen duen kontratuen esparrutik kanpo kokatzen dituen lankidetza hitzarmenak¹⁰⁷.

Beraz, lankidetza hitzarmenaren bitartez kooperatiba batek zerbitzu publiko bat eman dezake. Zerbitzu publikoa NFK eta EAEren arteko muga gainditzen duen kooperatibaren esku utziko luke EAE ala NFK-ko udal batek, ala mugazgaindiko mankomunitate nahiz partzuergo batek.

5 Ipar Euskal Herriko herri kooperatiben bideragarritasuna

Ipar Euskal Herriko herri kooperatiben kasuan, ezinbestean, frantziar estatuko legedi orokorrera jo behar dugu, Ipar Euskal Herrian ez Euskal hirigune elkargoak¹⁰⁸ ezta ere udalek (*communes*) ez baitute inolako eskumen legegilerik herri kooperatiben gaian.

Ipar Euskal Herriari dagokion tokiko mailan, kooperatibekin lankidetza publiko-komunitarioa gauzatuz, Ipar Euskal Herriko udalerriak eta Euskal hirigune elkargoa izan daitezke protagonista, lurralde kolektibitate gisa (*collectivité territoriale*).

Lurralde kolektibitateak dira Estatua ez diren gainerako botere publiko lurraldetarrak. Udalerriaz gain, beste lurralde kolektibitateak Departamentua, Erregioa, eta Euskal hirigune elkargoa dira. Izan ere, Ipar

105 Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, 47.1 art: “Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común”.

106 Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, 47.2 c) art: “c) Convenios firmados entre una Administración Pública u organismo o entidad de derecho público y un sujeto de Derecho privado”.

107 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público, 6.2 art: “Estarán también excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales”.

108 <https://www.communaute-paysbasque.fr/eu/euskal-hirigune-elkargoa>

Euskal Herria Pirinio Atlantikoen Departamentuan eta Akitania Berriako Erregioan kokatzen da.

Ipar Euskal Herrian, administrazio publikoen eta kooperatiben artean lankidetzak aukera desberdinak daude. Lankidetzak motaren ikuspegitik, juridikoki, bi bide nagusi desberdin ditzakegu:

- Administrazio publikoa kooperatibako bazkide izatea.
- Administrazio publikoak kontratua egitea kooperatibarekin.

5.1 Administrazio publikoa kooperatibako bazkide izatea

Zalantzarik gabe, Ipar Euskal Herrian lankidetzak publiko komunitarioa garatzeko kooperatiba mota egokia SCIC da (société coopérative d'intérêt collectif).

Kooperatiba mota honen ezaugarri nagusia da bere helburua, beti egoten den kooperatzaileen interes mutualaz gain, interes kolektibo eta gizarte onurakoa dela¹⁰⁹. Zehazki, SCICen helburua gizarte onurako eta interes kolektiboko zerbitzuak edo ondasunak ekoiztea da¹¹⁰.

Gizarte onurak suposatzen du helburu komun baten inguruan, SCICeko bazkide izango direla bazkide mota desberdinak, elkarlanean arituko direnak. Gakoa ez da aktibitate mota, baizik eta aktibitatearen dinamika, aktore desberdinek elkarlanean garatzen dutena. Bazkide bakoitzak boto bat edukiko du batzar orokorrean¹¹¹.

Ezinbestean SCICeko bazkide gisa gutxienez hiru mota hauetakoak egon behar dira: langile-bazkideak; bazkide erabiltzaileak; eta egitasmoan inplikatzeko den hirugarren bazkide mota bat, administrazio publikoa izan

109 SCICen informazio argia lortzeko, <https://www.les-scic.coop/presentation>

110 47-1775 Legea, 1947ko irailak 10ekoa, kooperazioari buruzkoa, 19 quinques art: “Les sociétés coopératives d'intérêt collectif sont des sociétés anonymes, des sociétés par actions simplifiées ou des sociétés à responsabilité limitée à capital variable régies, sous réserve des dispositions de la présente loi, par le code de commerce. Elles ont pour objet la production ou la fourniture de biens et de services d'intérêt collectif, qui présentent un caractère d'utilité sociale. Ces biens et services peuvent notamment être fournis dans le cadre de projets de solidarité internationale et d'aide au développement”.

111 47-1775 Legea, 1947ko irailak 10ekoa, kooperazioari buruzkoa, 19 octies art: “Chaque associé dispose d'une voie à l'assemblée générale ou, s'il y a lieu, dans le collège auquel il appartient”.

daitekeena (baita ere enpresa pribatu bat, elkarte bat, etab.). SCICean, administrazio publikoak kapitalaren %50a arte eduki dezake¹¹².

SCICen funtzionamenduan laguntzeko, espreski aurreikusten da administrazio publikoek dirulaguntzak ematea¹¹³.

5.2 Administrazio publikoak kontratua egitea kooperatibarekin

Ipar Euskal Herriko udalek edo Euskal hirigune elkargoak lankidetza garatu dezakete kooperatibekin kontratu bitartez. Lankidetza testuinguru horretan, hiru kontratu mota nagusi aipatuko ditugu: merkatu publikoak, zerbitzuen emakida, eta zerbitzu publikoa eskuordetzea (delegazioa).

Merkatu publikoak, eskaera publikoaren arloko kontratuak dira. Hortaz, eskaera publikoaren printzipioak errespetatu behar dituzte: adjudikaziodun izateko hautagaiak berdintzatzea; kontratuen publizitatea; edota kontratuen gardentasuna.

Merkatu publikoko kontratuen artean, hiru mota daude: merkatu kontratua, lankidetza merkatuaren kontratua, eta defentsa edo segurtasunaren merkatuaren kontratua¹¹⁴. Kasu guztietan, prezioen truke egiten diren erosketak dira.

Merkatu kontratuaren bitartez administrazio publikoek beren lan, hornidura, edo zerbitzu beharrak asetzen dituzte, elementu horiek prezioen truke erosiz¹¹⁵.

112 47-1775 Legea, 1947ko irailak 10ekoa, kooperazioari buruzkoa, 19 septies art: “La société coopérative d'intérêt collectif comprend au moins trois catégories d'associés, parmi lesquelles figurent obligatoirement les personnes qui bénéficient habituellement, à titre gratuit ou onéreux, des activités de la coopérative et les salariés ou, en l'absence de personnes salariées au sein de la société, les producteurs de biens ou de services de la coopérative. Les collectivités territoriales, leurs groupements et les établissements publics territoriaux peuvent détenir ensemble jusqu'à 50 % du capital de chacune des sociétés coopératives d'intérêt collectif”.

113 47-1775 Legea, 1947ko irailak 10ekoa, kooperazioari buruzkoa, 19 decies art: “Les collectivités territoriales et leurs groupements peuvent accorder des subventions aux sociétés coopératives d'intérêt collectif en vue de participer à leur développement dans des conditions fixées par décret en Conseil d'Etat”.

114 Eskaera publikoaren kodea (code de la commande publique), L. 1110-1 art: “Les marchés, marchés de partenariat et marchés de défense ou de sécurité définis au présent titre sont des marchés publics”.

115 Eskaera publikoaren kodea (code de la commande publique), L. 1111-1 art: “Un marché est un contrat conclu par un ou plusieurs acheteurs soumis au présent code avec

Lankidetzta merkatuaren kontratuan, aldiz, administrazio publikoek enpresa batekin, kooperatiba izan daitekeena, kontratatzen dutena da zerbitzu publikoa emateko beharrezkoa den obra bat egin, eraberritu edota hondatzea; ala interes orokorreko zerbitzu bat ematea¹¹⁶.

Azkenik, defentsa edo segurtasunaren merkatuaren kontratuan, horniduraren, lanaren, edo zerbitzuaren objektua militarra edo segurtasunaren arlokoa da¹¹⁷.

un ou plusieurs opérateurs économiques, pour répondre à leurs besoins en matière de travaux, de fournitures ou de services, en contrepartie d'un prix ou de tout équivalent”.

116 Eskaera publikoaren kodea (code de la commande publique), L. 1112-1 art: “Un marché de partenariat est un marché public qui a pour objet de confier à un opérateur économique ou à un groupements d'opérateurs économiques une mission globale ayant pour objet la construction, la transformation, la rénovation, le démantèlement ou la destruction d'ouvrages, d'équipements ou de biens immatériels nécessaires au service public ou à l'exercice d'une mission d'intérêt général et tout ou partie de leur financement. Le titulaire du marché de partenariat assure la maîtrise d'ouvrage de l'opération à réaliser. Cette mission globale peut en outre comprendre: 1° Tout ou partie de la conception des ouvrages, équipements ou biens immatériels; 2° L'aménagement, l'entretien, la maintenance, la gestion ou l'exploitation d'ouvrages, d'équipements ou de biens immatériels ou une combinaison de ces éléments; 3° La gestion d'une mission de service public ou des prestations de services concourant à l'exercice, par la personne publique, de la mission de service public dont elle est chargée”.

117 Eskaera publikoaren kodea (code de la commande publique), L. 1113-1 art: “Un marché de défense ou de sécurité est un marché conclu par l'Etat ou l'un de ses établissements publics et ayant pour objet : 1° La fourniture d'équipements, y compris leurs pièces détachées, composants ou sous-assemblages, qui sont destinés à être utilisés comme armes, munitions ou matériel de guerre, qu'ils aient été spécifiquement conçus à des fins militaires ou qu'ils aient été initialement conçus pour une utilisation civile puis adaptés à des fins militaires; 2° La fourniture d'équipements destinés à la sécurité, y compris leurs pièces détachées, composants ou sous-assemblages, et qui font intervenir, nécessitent ou comportent des supports ou informations protégés ou classifiés dans l'intérêt de la sécurité nationale; 3° Des travaux, fournitures et services directement liés à un équipement mentionné au 1° ou au 2°, y compris la fourniture d'outillages, de moyens d'essais ou de soutien spécifique, pour tout ou partie du cycle de vie de l'équipement. Pour l'application du présent alinéa, le cycle de vie de l'équipement est l'ensemble des états successifs qu'il peut connaître, notamment la recherche et développement, le développement industriel, la production, la réparation, la modernisation, la modification, l'entretien, la logistique, la formation, les essais, le retrait, le démantèlement et l'élimination; 4° Des travaux et services ayant des fins spécifiquement militaires ou des travaux et services destinés à la sécurité et qui font intervenir, nécessitent ou comportent des supports ou informations protégés ou classifiés dans l'intérêt de la sécurité nationale”.

Bestalde, frantziar estatuko legediak desberdintzen ditu zerbitzuen emakidaren kontratua¹¹⁸, eta zerbitzu publikoa eskuordetzearen kontratua¹¹⁹. Zerbitzu emakidaren kontratuaren bitartez, kooperatiba zerbitzu publiko baten kudeaketaren emakidaduna izan daiteke. Beraz, bi kasuetan, kontratuaren objektua zerbitzu publikoa ematea kooperatiba baten esku uztea izan daiteke.

Desberdintasun nagusia da zerbitzu publikoa eskuordetzearen kontratua aurreikusia dagoela espreski lurralde kolektibitateentzat (collectivités territoriales). Gorago aipatu dugun bezala, lurralde kolektibitateak Estatua ez diren administrazio publiko lurraldetarrak dira. Ipar Euskal Herriaren esparruan, udalerriak eta Euskal hirigune elkargoa.

Hortaz, euskal udalerri batek, edo Euskal hirigune elkargoak, zerbitzu publikoa eskuordetzeko kontratuaren bitartez zerbitzu publikoak euskal kooperatiben esku utzi ditzakete. Kontratu hauetan, administrazioak ez dio preziorik ordaintzen kooperatibari. Kooperatibak zerbitzu publikoa ustiatuko du eta ordaina zerbitzuaren erabiltzaileengandik jasoko du.

6 Euskal Herriko herri kooperatiben bideragarritasuna

Euskal herri osoko herri kooperatibaren aukera aztertzeko, gure zazpi herrialdeak barneratuz, ikus ditzagun lankidetza publiko kooperatiboaren bi aldeak: kooperatiba, eta alderdi publikoa.

Kooperatibari dagokionez, Euskal Herri osoko kooperatiba sortzea posible da. Bidea Europako kooperatiba da, eta Europako Batasunak

118 Eskaera publikoaren kodea (code de la commande publique), L. 1121-3 art: “Un contrat de concession de services a pour objet la gestion d’un service. Il peut consister à concéder la gestion d’un service public. Le concessionnaire peut être chargé de construire un ouvrage ou d’acquérir des biens nécessaires au service. La délégation de service public mentionnée à l’article L. 1411-1 du code général des collectivités territoriales est une concession de services ayant pour objet un service public et conclue par une collectivité territoriale, un établissement public local, un de leurs groupements, ou plusieurs de ces personnes morales”.

119 Lurralde kolektibitateen kode orokorra (code général des collectivités territoriales), L. 1411-1 art: “Les collectivités territoriales, leurs groupements ou leurs établissements publics peuvent confier la gestion d’un service public dont elles ont la responsabilité à un ou plusieurs opérateurs économiques par une convention de délégation de service public définie à l’article L. 1121-3 du code de la commande publique préparée, passée et exécutée conformément à la troisième partie de ce code”.

sortutako aukera juridiko egingarria da¹²⁰. Hain zuzen ere, badugu kasu erreal bat, Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba elkarteak, kooperatiba diren Euskal Herri osoko ikastolak barnebiltzen dituenak. Europa osoan, sorturiko bigarren Europar kooperatiba izan zen.

Alderdi publikoari dagokionez, une honetan Euskal Herri osoa barneratzen duten bi erakunde publiko nagusi aipatuko ditugu: Udalbiltza, eta Euroeskualdea.

Udalbiltza herrigintzatik sorturiko erakundea da, partzuergo publikoaren izaera juridikoa duena¹²¹. Bere kide izan daitezke Euskal Herri osoko udalerriak, eta baita ere irabazi asmorik gabeko elkarateak. Bere helburuen artean Euskal Herriko herrialdeen arteko elkarlana eta lankidetzak sozioekonomikoa dago, eta arlo horretako hainbat egitasmo eta dirulaguntza kudeatzen ditu.

Euroeskualdea mugaz bi aldeetako erakunde publikoek bultzaturikoa da, EAE, NFK, eta Ipar Euskal Herria barneratzen duen Akitania Berriaren Erregioa biltzen dituenak¹²². Erakunde honek mugazgaindiko lankidetzak bultzatzen du hainbat arlo sozioekonomikoetan, eta egitasmo zein dirulaguntza desberdinak kudeatzen ditu.

Beraz, herri kooperatiben testuinguruan, Euskal Herri osoko lankidetzak publiko komunitarioa garatzeko agenteak baditugu. Euskal Herri osoko europako kooperatiba bat badago, eta, noski, gehiago sor daitezke. Alderdi publikoan, Udalbiltza eta Euroeskualdea ditugu. Nola gauzatu daiteke bi alderdien arteko lankidetzak publiko komunitario hori?

Europako Kooperatibaren kasuan, 1435/2003 Erregelamendua Europako Kooperatibaren araubide juridikoaren iturri nagusia da¹²³. Hortik abiatuta, neurri handi batean Europako Kooperatibaren araubidea bere egoitza sozialaren kokapenak baldintzatzen du.

120 1435/2003 Kontseiluaren Erregelamendua, uztailak 22koa, Europako sozietate kooperatiboaren Estatutuari buruzkoa.

121 www.udalbiltza.eus

122 www.euroregion-naen.eu/eu

123 1435/2003 Kontseiluaren Erregelamendua, uztailak 22koa, Europako sozietate kooperatiboaren Estatutuari buruzkoa, 1.1 art.

Espainiar eta frantziar estatuko legediek, hurrenez hurren¹²⁴, Europako kooperatibak beren lurraldeetan kokatuz gero edukiko dituzten baldintza juridikoak zehaztu dituzte, egoitza sozialaren arabera.

Beraz, Europako Kooperatiba batek non kokatzen duen bere egoitza soziala, oso garrantzitsua da. Oinarrizko araubide juridikoa Europako Batasunaren 1435/2003 Erregelamenduak finkatuta ere, bere aktibitatearen hainbat baldintza egoitza sozialaren arabera zuzenbide kooperatiboak ezarriko ditu.

Hortaz, Euskal Herrian kokaturiko Europako Kooperatiba batean, kontuan hartu behar dugu ea non dagoen bere egoitza soziala. Europako araudiaren oinarritik abiatuta, Nafarroako Foru Komunitatean baldin badago, bertako Kooperatiben foru legea aplikatuko zaio; Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badago, EAEko kooperatiba legea; eta Ipar Euskal Herrian baldin badago, frantziako Kooperatiben legedia.

Eta horrek, egoitza sozialaren kokapenak, baldintzatuko ditu neurri batean erakunde publikoen eta Europako kooperatibaren arteko lankidetzako publiko-komunitarioko aukerak.

Beraz, lankidetzako aukerak zehazteko, behin egoitza sozialaren kokapena jakinda, jo beharko genuke txosten honetan aztertutako 2 atalera (Europako kooperatibak EAEn baldin badu egoitza); 3 atalera (egoitza soziala Nafarroa garaian edukiz gero); edo 5 atalera (egoitza Ipar Euskal Herrian baldin badago).

7 Konklusioak

Euskal Herrian bizi dugun zatiketa juridikoa dela eta, konplexua izan da aukera desberdinak aztertzea, herri kooperatibaren lurralde esparruaren arabera.

Saiatu gara, dena den, aukera desberdinak ahalik eta argien azaltzen, irizpide nagusia kooperatibaren kokapena eta lurralde esparrua izanik. Horren arabera, aukera desberdinak bost ataletan sailkatu ditugu: herri kooperatiba Euskal Autonomi Erkidegoaren esparrukoa izatea; Nafarroako

124 3/2011 Legea (espainiar Estatu mailakoa), martxoak 4koa, espainiar Estatuan egoitza duen Europako Kooperatiba erregulatzen duena; 47-1775 Legea, 1947ko irailak 10ekoa, kooperazioari buruzkoa, III bis Titulua.

Foru Komunitatekoa, EAE eta NFKren arteko mugaz gaindiko kooperatiba; Ipar Euskal Herrian kokatua dagoena, eta Euskal Herri osoa besarkatzen duena.

Bost atal horietan, banan banan, aukera desberdinak aztertu ostean, ondoko konklusio nagusiak atera ditzakegu.

EAEko herri kooperatiba eta administrazio publikoen arteko lankidetzak bideratzeko tresna juridiko desberdinak daude. Herri kooperatibentzat aukera interesgarriena eta zentralena, zerbitzu publikoen kooperatibarena dirudi. Udal batek, bere ekimenez, zerbitzu publikoen kooperatiba baten sorrera sustatzen du, kooperatiba horren esku uzteko zerbitzu publikoaren kudeaketa. Beraz, sustatzaile nagusia, eta ezinbestekoa, zerbitzu publikoaren eskumena duen administrazio publikoa litzateke. Kooperatiba sortzen denean, administrazio publikoa kooperatibako bazkide bihurtzen da. Hortik abiatuta, herri kooperatibako bazkidetzak irekita dago kooperatibako langileei, eta erabiltzaileei. Udalaren borondate politikoa behar da urrats hori emateko, bide juridikoa prest dago.

EAEan jarraituz, udal bat edozein kooperatibako bazkide izan daiteke, gehienbat bazkide laguntzaile edo bazkide kapitalista. Modu hauetan, lankidetzak gauzatzen da administrazio publikoa kooperatiba barruan egonik, bazkide gisa, kooperatibari bere zereginetan lagunduz, edo kapital ekarpena eginez. Kooperatibaren egitura konplexua baldin bada, kooperatiba integraletan edo bigarren mailako kooperatibetan, aukera dago ere udala bazkide laguntzaile izateko. Kooperatiba integraletan, administrazio publikoa bazkide kapitalista izan daiteke ere.

EAEko kooperatibetan jarraituz, lankidetzako beste aukera bat da administrazioa ez sartzeko kooperatiba barruan bazkide gisa, baizik eta kooperatiba kontratatzea. Kontratu publikoen arloan kokatzen gaitu aukera honek. Kontratu horien artean, aukera interesgarriena dirudi zerbitzuen emakidaren kontratua. Kontratu horren bitartez, herri kooperatiba zerbitzu publikoaren emakidadun bihurtzen da, kooperatibak zerbitzu publikoa ustiatzen du, eta zerbitzuaren erabiltzaileek kooperatibari ordaintzen diote.

Azken aukera litzateke kontratua ez, baizik eta hitzarmena egitea administrazio publikoak kooperatibarekin, kooperatibak zerbitzu publikoa

eman dezan. EAEn kasu nagusia hezkuntza kooperatibena da, bereziki, ikastolak. Hitzarmen edo itunen bitartez, hezkuntza kooperatibek hezkuntzako zerbitzu publikoa ematen dute, horren truke finantziazio publikoa jasoz.

Nafarroako Foru Komunitateko kooperatiben kasuan, egoera EAEko kooperatiben oso antzekoa da, araudia desberdina izan arren, araudi desberdin horren edukia oso antzekoa baita.

Azpimarratzeko moduko desberdintasun nagusia izango litzateke Nafarroako kooperatiben legeak EAEkoak baino gehiago zehazten duela zerbitzu publikoko kooperatiben aukera. EAEko legeak espreski zerbitzu publikoko kooperatiba gisa izendatzen dituen horiek Nafarroako legeak ez ditu horrela deitzen, baina izaera berbera dute. Desberdintasuna da aukera hori gehiago zehaztu, eta murriztu, egiten dela nafarroako herri kooperatiben kasuan.

Izan ere, nafar kooperatiba mistoa izan behar da, eta, udalaren ekarpena, ezinbestean, ekonomikoa. Kooperatiba misto horrek zerbitzu publikoaren zeharkako kudeaketa egiten du. Kuriosoa da EAEko legediak aukera hori kudeaketa zuzen gisa kalifikatzen duela. Tokiko administrazioak espreski sorrarazten du zerbitzu publikoa zeharka kudeatuko duen kooperatiba misto hori. Kooperatiba mistoari entitate lokalak egindako kapital ekarpena, gutxienez, kapital sozialaren herena izango da.

Ikusi dugun hurrengo aukera NFK eta EAEren arteko muga gainditzen duen kooperatibarena da. Kasu honetan, lankidetza publiko komunitarioko legezko aukerak espainiar Estatuko kooperatiba legeak ezartzen ditu.

Hego Euskal Herriko mugaz gaindiko kooperatiba hauetan konplikatu litzateke administrazioak sorrarazitako zerbitzu publikoen kooperatibaren aukera, zalantzakoa dirudi, legediak ez baitu espreski aurreikusten. Horrelako kooperatiba sorrarazteko erakunde publikoak muga autonomikoaz gaindiko mankomunitateak edo partzuergoak izan beharko lirateke.

Ipar Euskal Herriko kasuan, araudi eta figura desberdinak izan arren, funtsean, aukeren izaera antzekoa dela esan genezake.

Ipar Euskal Herriko udal bat edo hiri elkargoa kooperatibako bazkide izan daitezke, zehazki SCIC (société coopérative d'intérêt collectif) motako kooperatiba batean. SCICak interes kolektibo eta gizarte onurako zerbitzua eman dezake.

Beste aukera nagusia da administrazio publikoak, kooperatibako bazkide egin gabe, kooperatiba kontratatzea. Kontratu moten artean, azpimarratu behar dugu gure intereseko arloan bete betean asmatzen duen zerbitzu publikoa eskuordetzearen kontratua. Kontratu honen bitartez Ipar Euskal Herriko erakunde publiko batek kooperatiba baten esku utzi dezake zerbitzu publikoa ematea, kooperatiba horrek zerbitzu publikoa ustiatu eta erabiltzaileengandik prezioa jasoz.

Azkenik, Euskal Herri osoko herri kooperatibaren kasuan, Europako Kooperatiba izango litzateke erabili beharreko bide juridikoa. Europako kooperatibari aplikatuko zaion zuzenbidea, europako araudiko oinarriaz haratago, baldintzatuta dago kooperatiba horren egoitza sozialaren arabera. Beraz, neurri handi batean, kokapen horren arabera izango dira lankidetzak publiko komunitariorako irekitzen diren aukerak. Kokapenak baldintzatuko du ea aplikatuko den EAEko zuzenbide kooperatiboa, NFKkoa, ala Ipar Euskal herrikoa.

Konklusio orokor gisa, eta konplexutasun tekniko-juridikoen gaineratik, ikusi dugu zuzenbide kooperatiboak Euskal Herrian herri kooperatiben dinamika sustatzeko bidea irekitzen duela. Hortik abiatuz, bide horretan aurrera egiteko, ezinbestekoak dira erakunde publikoen borondate politikoa, eta baita ere euskal mugimendu kooperatiboaren gaitasuna eta prestutasuna.

8 Erabilitako Araudia

Code de la commande publique

Code général des collectivités territoriales

47-1775 Legea, 1947ko irailak 10ekoa, kooperazioari buruzkoa

7/1985, apirilaren 2ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen

293/1987 Dekretua, irailaren 8koa, Hezkuntza Itunei buruzko Erreklamendua

6/1990 Lege Forala, uztailak 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa

416/1992 Foru Dekretua, abenduak 14koa, Hezkuntza Itunei buruzko Erreklamendua

27/1999, uztailaren 16ko Legea (espainiar Estatu mailakoa), Kooperatibei buruzkoa

1435/2003 Kontseiluaren Erreklamendua, uztailak 22koa, Europako sozietate kooperatiboaren Estatutuari buruzkoa

14/2006 Foru Legea, abenduaren 11koa, Nafarroako kooperatibei buruzkoa

3/2011 Legea (espainiar Estatu mailakoa), martxoak 4koa, espainiar Estatuan egoitza duen Europako Kooperatiba erregulatzen duena

Ley 5/2011, de 29 de marzo, de economía social

Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa

Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de contratos del sector público

2/2018 Foru Legea, apirilak 13koa, kontratu publikoei buruzkoa

11/2019 Legea, abenduak 20koa Euskadiko Kooperatibei buruzkoa

9 Oinarrizko bibliografia

BENGOETXEA ALKORTA, A., *Cooperativas de enseñanza: un modelo singular basado en el compromiso de la comunidad educativa*, 2019.

FICI, A., La sociedad cooperativa europea: cuestiones y perspectivas, CIRIEC-España. Revista Jurídica nº 25, 2014.

GALLASTEGI ORMAETXEA, I., Fundamentos jurídicos y fomento de la colaboración público-cooperativa para la prestación de servicios públicos, Doktoretgo Tesia, 2020.

GARCÍA, O./ IRASUEGI, B./ SARRIEGI, I., Hacia un municipio con acción comunitaria y transformadora

HH.AA., *Les coopérations entre économie publique et économie sociale et solidaire au service de l'intérêt collectif*, Cahiers du CIRIEC France, 4, 2022.

LKS, *Análisis jurídico sobre la constitución de cooperativas para el desarrollo de actividades de competencia municipal en el ámbito de servicios sociales*, 2020.

MERINO HERNÁNDEZ, S., HH.AA., *Euskadiko Kooperatiben Legearen gaineko Iruzkinak*, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 2022.

MORENO MOLINA, J.A./ PINTOS SANTIAGO, J., Los contratos administrativos y su aplicación: obras, suministros, servicios, y concesiones de obras y servicios, El consultor de los ayuntamientos, Wolters Kluwer, 2018.

SÁNCHEZ MORÓN, M., *Dercho Administrativo, Parte General*, 17ª ed., Tecnos, 2021.

KoopFabrika.eus



KoopFabrika